

GIZARTERATZEKO ERAKUNDE ARTEKO II. PLANA 2007-2009



ELISKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Departamento de Justicia,
Empleo y Seguridad Social

Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantza Saila



AURKIBIDEA

- 1. Planaren aurkezpena eta egitura.**
- 2. Lehen Ardatza: Hausnarketa estrategikoa.**
 - 2.1 Egoeraren diagnostikoa: pobrezia eta gizarte-bazterkeria
 - 2.2 Gizarteratzeko 1. Euskal Planaren ebaluazioaren emaitzak eta eskaintzak.
 - 2.3 Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Politiken bilakaera EAEn eta Europako testuinguruan
 - 2.4 Babeseko eta Gizarteratzeko Euskal Eredua oinarritzen, definitzen eta egituratzen duten printzipioak
- 3. Bigarren Ardatza: Jardun estrategikoa**
 - 3.1 Babesari eta gizarteratzeari buruzko helburuak eta jardun espezifikoak.
 - 3.2 Gizarte-babeseko sistema orokorreari dagozkien helburuak eta jardunak
 - 3.3 Planaren kudeaketari eta haren aplikazioaren eta inpaktuaren jarraipenari loturiko helburuak eta jardunak.
- 4. Babesari eta gizarteratzeari buruzko helburuen eta jardun espezifikoen kostuaren kalkulua**
- 5. Jarraipen- eta ebaluazio-adierazle komunen garapena.**

1. PLANAREN AURKEZPENA ETA EGITURA

Dokumentu honek 2007-2009ko Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Planak oinarritzat hartzen duen diagnostikoa laburbiltzen du eta Planaren Helburuak eta Jardunak artikulatzen ditu, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak, Sailen arteko Batzordeak eta Batzorde Iraunkorrek 2006ko irailean eta urrian onartutako Oinarrizko Lerro Estrategikoen arabera.

Lehenik, dokumentuak azken urteotan gure inguruko gizarte-politiken bilakaeraren ezaugarri izan diren eta Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plan honen lerro estrategikoak formulatzeko garrantzitsutzat jotzen diren zenbait elementu aipatzen ditu. Bigarren, EAEko pobrezia eta gizarte-bazterkeria egoeren eta horien bilakaeraren diagnostikoa egiten da, baita euskal erakundeek eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak gai horretan hartutako politika espezifikoen eraginkortasunaren diagnostikoa ere, hobe daitezkeen alderdiak azpimarratuz, plangintza-tresna bati dagokion bezala. Plana lantzeko kontuan izan dira Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak 2003., 2004. eta 2005. urteei dagokienez egindako Gizarteratzeko I. Euskal Planaren urteko ebaluazioak, eta sailak egindako azterlanak eta estatistikak (funtsean Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2004ko Inkesta, eta 2004ko Familiei buruzko Inkesta).

Diagnostiko horretatik abiatuz II. Planaren printzipioak eta horren helburu estrategikoak eta operatiboak formulatzen dira, baita proposatzen diren jardunak ere, eta horiek idazteko gizarte-bazterkeriaren aurkako politiken esparruan esku hartzen duten eragile sozial eta instituzionalen parte-hartze zabala izan du.

Proposatutako lerroen artikulazioak zenbait desberdintasun ditu Gizarteratzeko I. Euskal Planarekin. Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzat diseinatutako eta destinatutako neurriak barne hartzen dituzten helburu espezifikoetara lehentasuna eman nahi izan zaie, eta oso bereziki, EAEn tradizionalki gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren arloa eratu duten eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzaren menpe dauden neurriak.

Planean bildutako jardunen oinarria da gizarteratzeko eta gizarte-babeseko euskal sistema funtsean Gizarte Zerbitzuen sistemaren bitartez gauzatzen dela, eta ikuspuntu horretatik lehentasunez jarduteko erpinak edo bektoreak lau izango direla: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak –gizarteratze-prozesuetan laguntzeaz arduratzen direnak–, gizarteratzeko eta laneratzeko programak eta baliabideak, diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak eta Gizarte Zerbitzu espezializatuak, esku-hartzearen fase desberdinetan beharrezkoak izan daitezkeen baliabide sozio-asistentziaren sorta handia bideratzen dutenak.

Horiei gaineratzen zaizkie, eta beraz Planak arreta eskaintzen die ere, euskal administrazioen eskumenekoak diren gizarte-babeserako gainerako sistema orokorrak. Izan ere, Planak bazterkeriaren ikuspegi multidimentsionalari eta multikausalari erantzuten dion neurrian, komenigarritzat jo da erakunde arteko eta sailen arteko izaerari eustea, Gizarte Zerbitzuen esparruekin batera gabeziekin erlazionatutako bazterkeria-egoeren aurka borrokatzeko asko lagundu dezaketen esparruekin –osasuna, etxebizitza, hezkuntza eta justizia, batez ere– erlazionatutako neurriak bilduz bakoitzaren jardun-esparruan. hala ere, esparru horiei buruzko neurrien kopurua mugatzea erabaki da, ahal den neurrian bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonengana bideratuz, eta hori guztia zenbait arrazoi direla medio: lehenengoa, Planaren egitura sinplifikatu beharra da, operatiboagoa izan dadin, horixe ikusi baita egindako ebaluazioetan; eta bigarrena, Planean bildutako neurriak beste sail edo erakunde batzuen ekintza-planetan bildutakoekin ez gainjartzeko. Gizarte Zerbitzuen kasua desberdina da, izan ere, Plan honetan bilduta dauden neurri asko esparru horretan sartuta edo bideratuta baitaude.

Planaren dokumentua bi Ardatz handitan egituratzen da; izaera desberdina dute baina osagarriak dira. Lehen Ardatzean, esku-hartzeko planaren oinarri gisa erabiltzen dena, pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aukako borrokarako politikari buruzko **hausnarketa estrategikoa** garatzen eta azaltzen da, eta honako lau elementu hauez osatuta dago:

1. Egoeraren diagnostikoa: pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren azterketa.
2. Gizarteratzeko Lehen Euskal Planaren ebaluazioaren emaitzak eta eskaintzak.
3. Bazterkeriaren aurka Borrokatzeko Politiken bilakaera EAEn eta Europako testuinguruan
4. Babeseko eta Gizarteratzeko Euskal Eredua oinarritzen, egituratzen eta bateratzen duten printzipioak.

Bigarren Ardatzak Planaren jardun estrategikoa garatzen du, zeina hiru jardun-esparrutan egituratzen den:

1. Babeseko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari dagozkion helburuak eta jardunak;
2. Gizarte-babeseko sistema orokorreari dagozkien helburuak eta jardunak;
3. Planaren kudeaketari eta haren aplikazioaren eta inpaktuaren jarraipenari loturiko helburuak eta jardunak;

Ondoren, babesari eta gizarteratzeari buruzko helburuak eta jardun espezifikoak zehazten dira, eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazle komunak garatzen dira.

2.- LEHEN ARDATZA: ANALISI ESTRATEGIKOA

2.1 EGOERAREN DIAGNOSTIKOA: POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA

2.1.1. EAEEn pobrezia eta bazterkeria lotutako problematiken bilakaera

Azken datuek —2004. eta 2005. urteei buruzkoek— honako oinarriko elementu hauek uzten dituzte agerian:

- **Pobrezia larriaren tasak**, edo batez besteko diru-sarrera baliokidearen %40tik beherako diru-sarrerak dituzten familietan bizi diren pertsonen ehunekoak, EAEen %3,7ko eragina du, eta 15en Europar Batasuneko herrialdeetarako batez besteko tasa %5ekoa da¹. Datu horrek, beraz, Europar Batasuna 2004. urtera arte osatzen zuten herrialde gehienena baino posizio hobean kokatzen du EAE. tasa handiagoa zuten Frantziak eta Herbehereak %4arekin, Erresuma Batuak %5arekin, Portugalak %6arekin, Estatu Espainiarrak %7arekin eta Italiak eta Greziak %8arekin. Izan ere, esan daiteke **Euskadin gizarteratze-politiketan eginiko ahaleginak pobrezia larriko tasak eragin dituztela, eta Europako herrialde aurreratuenen artean gaudela horri esker**. Estatu Espainiarraren mailan, eta autonomia erkidego guztietarako datu-iturri berbera erabiliz², EAE da, erkidego bakoitzerako pobrezia atalase propioa erabili arren, pobrezia larriko tasa txikienak dituen³.
- **Pobrezia erlatiboari** dagokionez, zeinaren atalasea diru-sarrera baliokidearen medianaren %60an kokatuta dagoen, **EAEko egoera ez da hain positiboa besteekin konparatuta**, baina %16,5eko eraginarekin EB-15eko batez besteko tasa baino zerbait beherago dago (%17⁴). Eraitza hobeak dituzte honako herrialde hauek: Danimarka, Suedia eta Finlandia (%11), Austria (%13), Frantzia (%14), Belgika (%15), edo Alemania (%16%); eta tasa altuagoak honako hauek: Erresuma Batua (%18), Italia (%19), Espainia eta Grezia (%20), edo Portugal eta Irlanda (%21)⁵. Adierazi behar da,

¹ Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritzak, 2004.

² Bizi Baldintzen Inkesta INE, 2004. Kasu horretan, INEK adierazten duen pobrezia-tasa biztanleriaren %5,5ekoa da, eta 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren %4,4koa.

³ Beste estatistika-iturri ofizial batzuek, adibidez Eusko Jaurlaritzaren 2004ko Familiei buruzko Inkestak, euskal familien diru-sarrerei dagokienez adierazten dute horien %18ak esaten duela arazo ekonomiko larriak dituztela, eta %9,8arentzat diru-sarrerarik eza beren arazorik larriena dela. Oinarriko premiak betetzeko diru-sarrerarik ez izatea arazotzat jotzen duten familien ehunekoak 5,3koa da, baina guraso bakarrek familietan %25era iristen da.

⁴ 2004. urteari buruzko datuak.

⁵ Espainia maila ere, INEren Bizi Baldintzei buruzko 2004ko Inkestaren datuak abiapuntutzat hartuz erkidego bakoitzaren berezko atalasea erabiliz, EAEko egoera (%16,7) ez da pobrezia larriari dagokiona bezain ona besteekin konparatuz gero, baina estatuko batez bestekoaren gainetik ditu diru-sarrera baxuen edo pobrezia erlatiboaren tasak.

azken batean, Europar batasun zaharreko 15 herrialdeen egoerarekin konparatuz gero **Euskadi dela erkidego bakarra Europako ongizateko edo pobrezia erlatiboko adierazle ez hain onetatik abiatuz pobrezia larriaren terminotan posizio askoz hobea lortzen duena.**

- Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDI) pobreziaren neurketa osatzen du mantentze-pobrezia eta metatze-pobrezia bereiziz. **45.000 euskal familia inguru –familia guztien %6,2– bi pobrezia mota horietako batean daude, eta 110.000 lagun (biztanleen %5,2) barne hartzen ditu.** Pobrezia-arriskuko bi mota horiei dagokienez, egoerarik ohikoena soilik mantentze-pobreziaren eraginpean dauden pertsonena da, hau da, errenta-maila baxuak dituztenak, egoera hori koiunturala izan ohi delarik, baina asko irauten duten kasuak ere badaude, eta hortik ateratzeko enplegu normalizatu bat lortu behar da, edo bestela gizarte-prestazioen zenbatekoa premietara egokitu behar da. Biztanleen %3,5 (73.718 lagun) egoera horretan daude, eta %2,2 metatze-pobreziaren eraginpean daude, hau da, aurrezkiarik edo lehendik metatutako baliabiderik gabe. Egoerarik zailena eta problematikoena bi pobrezia horien eraginpean dauden familiaena da, eta gaur egun egoera horretan biztanleen %0,5 daude (4.000 familia inguru)⁶.
- **Datuek erakusten dute pobrezia-tasen aldeko bilakaera epe luzera, baina egonkortzeko joera baten barruan:** pobreziako tasa orokorrek hamarkada honetako lehen urteetan (2000-2004) murrizketa txiki bat izan dute EAEn, eta horrela, aldi horretan **pobreziaren euspena** gertatu da, 1996 eta 2000 bitartean erorketa handiagoa izan zelarik⁷. Edonola ere, adierazi behar da pobreziaren euspen hori immigrazioaren, etxebizitza bezalako oinarrizko ondasun baten garestitzearen eta independizatzeko prozesuaren blokeo baten testuinguruan gertatzen dela, eta horrek familia independenteak handitzea ekarri du, horietako asko baliabide propio ezegonkorrekin.
- Ikusitako problematikaren zati handi bat, azken lau urteotan pobreziaren profileen hiru alderdiren eraginaren ondorioz gertatu den eraldakuntza sakonari loturik dago, honako hiru alderdi hauei loturik, alegia: guraso bakarreko familien gero eta arazo ekonomiko handiagoak, immigrazioa, eta okupazio egonkorra ez duten gazteek bizitza independenteari ekitea. Datuek erakusten dute pobrezia-arriskua askoz handiagoa dela pertsona bakarrak buru dituzten familietan (batez ere seme-alabak badituzte beren

⁶ Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritzak, 2004.

kargura), pertsona dibortziatuetan, 35 urtetik beherakoetan, ikasketarik gabeko pertsonetan, langabetuetan eta, oso bereziki, Europar batasunetik kanpoko etorkinak.

- Bestalde, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsona-taldeekin egindako jarraipen-azterlanek erakusten dute pertsona horien artean **gizarteratzerantzko aurrerapen geldoa baina konstantea** gertatzen ari dela: Bazterkeriari eta Gizarteratzeari buruzko Prozesuen Behatokiaren txostenek adierazten dute jarraipena egiten zaien pertsona gehieneko egoera hobetu egiten dela termino orokorretan eta laneratzeari dagokionez; enpleguan izandako hobekuntza ez dator beti bat egoera ekonomiko hobearekin, eta etxebizitza lortzearekin erlazioatutako arazoa handitu egiten da. Egindako ikerketek era berean erakusten dute, adibidez Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen artean⁸, **gizarte-bazterkeriako sentimendurik ez dagoela eta egoera ekonomikoa nahiko normalizatuta dagoela**. Bestalde, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonekin lan egiten espezializatuta dauden erakunde nagusiek arreta-eskariaren gehikuntza izan dute⁹. Baliteke horren arrazoia ez izatea bazterkeria-egoeren gehikuntza garbi bat, baizik eta erakunde horiek jarduteko ahalmen handiagoa izatea eta etorkinak arreta-sarean gehiago sartzea.
- EAEko pobrezia- eta bazterkeria-egoeren hedadurari eta bilakaerari buruzko datu horiek —globalki positiboak— bateragarriak dira zenbait joera eta problematikarekin, horiek ere esanguratsuak izanik diagnostikorako:
 - **Pobreziaren eta gurasobakar izatearen feminizazioa.** Emakume baten mendeko pertsonengan gizon baten mendeko pertsonengan baino 5 aldiz handiagoa da pobrezia motaren baten (mantentzeko edo metatzekoa) eragina (%17,2 eta %3,2, hurrenez hurren)¹⁰. Emakume bat buru duten familien artean pobreziaren eragina pixka bat hazi da azken urteotan (%10 gutxi gorabehera). Azken urteotan era berean pobrezia-arriskuko forma desberdinen eragina asko handitu da guraso bakarreko familietan, %6,4tik %11,3ra. Familia horiek dira, batez ere emakumeak buru dituztenean, gainerako familiekin alderatuta tasa handiak dituztenak honako gai hauei

⁷ Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritzak, 2004.

⁸ Oinarrizko Errentaren Ebaluazioak (Eusko Jaurlaritzak, 2004) adierazten du prestazio hori jasotzen dutenen %83k beren burua gizarteratutzat ematen dutela.

⁹ Caritasek 2004. urtean 35.800 laguni eskaini zien arreta, 2003an baino %10 gehiago. Horietatik, %50 inguru emakumeak ziren, eta antzeko proportzio batean etorkinak.

dagokienez: langabezia (%30), lan-aldibaterakotasuna (%63), erreferentziako pertsonak diru-sarrerarik ez izatea (%6,9), etxebizitza-arazo larriak (%31) eta diru-sarrera eskasekin erlazionatutako arazo larriak (%34)¹¹.

- **Pobreziaren lurralde-kontzentrazioa.** 2000 eta 2004 artean EAEn pobreziaren urbanizazio-prozesu bat gertatu da, eta betez ere arrisku-egoeren kontzentrazioa hiru euskal hiriburuei dagozkien eskualdeetan, 2000an pertsona pobre guztien %42 kontzentratzetik 2004an %62 kontzentratzera igaro baitira. Aldaketa horren arrazoa da eskualde horietan pobrezia-tasa altuenak dituzten kolektiboak kontzentratu direla (guraso bakarreko familiak, gazteak edo etorkinak), baita eskualde horietan familia mota horiek konparazioan egoera okerragoa dutela.
- **Soldata baxuak eta enplegua babesteko ahalmena gutxitzea.** EAE batez besteko soldatarik altuenetakoak eta soldata-desberdintasunik txikienetakoak duen erkidegoa den arren, soldata baxuak arazo bat dira familien %13,9rentzat¹². Bestalde, PGDIak erakusten du 2000 eta 2004 artean pobrezia-arriskuko egoeren gehikuntza handia dagoela pertsona okupatuak menpe dauden familietan, batez ere okupazioa egonkorra ez denean, eta horientzat pobrezia-arriskuaren eragina %4,0tik %6,7ra igaro da 2000 eta 2004 bitartean. Ildo horretan, esan daiteke Euskadin pobreziari eta ongizaterik ezari loturiko arazo gehienak langabeziari, lan-aldibaterakotasunari eta soldata baxuei loturik daudela¹³. Soldata baxuak dituzten biztanleei babesteko politika, beraz, funtsezkoa da.

Lehen aipatu den pobrezia-egoeraren euspina honako ezaugarri hauek dituen testuinguru batean gertatu da:

- **Langabezia-tasen murrizketa ikusgarria eta okupazio-tasen hazkunde ikaragarria, EAE ia erabateko enpleguko egoeran kokatuz.** 1995 eta 2004 artean,

¹⁰ Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritza, 2004.

¹¹ 2004ko Familiei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritza, 2005.

¹² 2004ko Familiei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritza.

¹³ Agerian geratu da, 2000ko PGDIri buruzko datuekin, EAEn erregistratu diren pobreziari edo ongizaterik ezari loturiko kasuen erdia baino gehiago (114.000) langabetuak edo nahikoak ez diren gizarte-prestazioak jasotzen dituzten ezaktiboak buru dituzten familiei dagozkiela. Beste 50.000 familietan arazoa soldata baxuak dira, kasu horietan, pertsona okupatuak osatu arren ez baitituzte gutxieneko ongizate-mailak lortzen. Azkenik, beste 15.000 familietan eskura dauden diru-sarreraren maila baxua ez da prekariotasunaren errealitatearen jatorri nagusia, baizik eta ustez nahikoak diren diru-sarreraren eta familia-tamaina handiegiaeren arteko konbinazioa baizik, diru-sarrera horiek motz geratuz (L. Sanzo, *Inguruak*, 2004).

okupazio-tasa %48,4tik %64,2ra igaro da (%62,2tik %74,7ra gizonen kasuan eta %34,4tik %53,7ra emakumeen kasuan¹⁴). Beraz, okupazio orokorreko eta gizonezkoen okupazioko tasak EBko batez bestekoa baino handiagoak diren arren, emakumezkoen okupazio-tasa oraindik ere pixka bat txikiagoa da. Luzaroko langabezia-tasa %3 ingurukoa da, EB baino pixka bat txikiagoa.

- Hala eta guztiz ere, euskal familien %18k adierazten dute beren arazorik larriena enpleguarekin erlazionatutakoren bat dela¹⁵: familiako kideren baten langabezia arazo larria da familien %9,6rentzat, eta lan-aldibaterakotasuna arazo bat da %8,3rentzat, eta soldata txikiak %8,7rentzat. PRAk, bestalde, adierazten du EAEko 12.000 familian gutxi gorabehera aktibo guztiak langabezia-egoeran daudela¹⁶. Emakumeen eta gazteen langabezia, azken urteotan murriztu bada ere, handia da (%7,0 eta %13,5, biztanleria aktiboaren osotasunaren %5,7ren aurrean). Bistan da, hala ere, laburbilduz, **enplegu-indizeen hobekuntzak ez duela pobrezia-tasetan neurri bereko murrizketa ekarri.**
- **Etxebizitzaren prezioaren hazkunde ikaragarria**, hala alokairukoan nola jabetzakoan: 2000 eta 2005 artean etxebizitza librearen metro koadroaren prezioa EAEn %51 handitu da (2.169 eurotik 3.281 eurora) eta hileroko alokairuena %34 (593 eurotik 796 eurora)¹⁷. Aldi berean, merkatuan babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza handitu egin da, etxebizitza libreekin alderatuz neurri handiagoan, baina urtero salmentan jarritako etxebizitzaren %30 inolaz ere gairatu gabe. Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenen bilakaera ez da hain positiboa izan, salmentarakoan edo alokairukoan, erregimen berezian, printzipioz baliabide ekonomiko txikiak dituzten familietara bideratuta.
- **Prezioen igoerak ekarri du etxebizitza euskal familien arazorik larrienetako bat izatea**¹⁸: familien %20,8rentzat arazo larria da eta %13,4rentzat arazo nagusia. Gauza bera gertatzen da gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen artean¹⁹. Bestalde, badirudi lehen etxebizitza eskuratu nahi duten gazteen kopurua egonkortu egin dela -80.000/90.000 inguruan-, 90eko hamarkadan izandako

¹⁴ Okupazio-tasaren hobekuntza horrek jarraitu du 2005. eta 2006. urteetan, eta PRAren ustez 2006ko laugarren hiruhilekoan %77,1era iritsi da gizonentzat eta %58,3ra emakumeentzat.

¹⁵ 2004ko Familiei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritza.

¹⁶ Eusko Jaurlaritzaren 2004ko Familiei buruzko Inkestak zifra hori 32.000ra igotzen du (%4,3).

¹⁷ EAEko higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta, EUSTAT, 2005.

¹⁸ 2004ko Familiei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritza.

¹⁹ Bazterkeriari eta Gizarteratzeari buruzko Prozesuen Behatokia, Sartu, 2005.

hazkunde handiaren ondoren. Horrekin batera, 47.000 familiak, %6,7 adierazten dute etxebizitza aldatzeko premia dutela.

- EAEn errolatuta dauden **etorkinen kopuruaren hazkunde handia**, 2003an %2,3 izatetik 2005ean 3,4 izatera igarota, eta 2000. urtean 51,1 izanik. 2005ean, EAEn atzerritarrak 72.767 ziren²⁰, eta horien laurdena Europako beste herrialde batzuetakoak dira. Kalkulatu da horietatik 40.000k baino gutxiagok zutela egoitza-baimena. PGDIren arabera, etorkinen pobrezia larriaren tasa 2004. urtean %23koa zen, eta etorkinak ez ziren biztanleen %3,1 bakarrik ukitzen zuen.

2.1.2. *Pobrezia-aren eta bazterkeriaren aurkako politika publikoen garapena eta eragina*

Lehen aipatutako pobrezia-tasen euspena, eta pobrezia-modu larrienen beherakada, inolako zalantzarik gabe, azken urteotan bultzada berria izan duten politika publikoen emaitza dira, eta politika publiko horiek pobrezia-aren modurik larrienak eraginkortasun handiarekin prebenitzeko aukera ematen dute. Ildo horretan, PGDIk erakusten du gizarte-prestazioek %85ean murrizten dituztela euskal familien pobrezia-tasak, murrizketa horren %19 biziraupenarekin eta erretiroarekin erlazionaturik ez dauden prestazioena izanik: termino absolututan, 85.000 lagunek Euskadin pobrezia-aren atalasea gainditzen dute besteak beste Oinarrizko Errentari, GLLei eta familiarentzako laguntzei esker.

Konparatuz gero, analisia Estatu Espainiarrera eta 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriara mugatuz (erkidego mailako prestazio ez kontributiboaren eragina neurri handiagoan jasan dezakeela kontuan izanik), **Madril eta EAE dira neurri handi batean pobrezia larriko tasak murrizten dituztenak prestazio ekonomikoaren bitartez**, betiere biziraupenarekin eta erretiroarekin erlazionatu gabe (pobrezia-tasak %59 eta %50 murriztu dira, hurrenez hurren).

Oinarrizko Errenta

Oinarrizko Errenta, gastuari eta estaldurari dagokienez, euskal administrazioek pobrezia-aren eta gizarte-bazterkeriaren aurka duten tresna nagusia da. Azken urteotan errenta horiek lortzeko irizpideetan sartutako aldaketan ondorioz, prestazioa jasotzen dutenen kopurua

²⁰ Immigrazioari buruzko Euskal Behatokia, 2005.

nabarmen handitu da (2002an 21.464 ziren eta 2006an 33.675, eta 2005ean 31.654²¹), hots, %6,8ko gehikuntza azken urtean. Prebalentzia-tasa, edo 1000 familia bakoitzeko jasotzaileen kopurua, 2004ko milako 31,7tik 2006ko milako 36,5era igaro da. gastu-terminotan, 2005eko datuekin, Administrazio Publikoek 139,350 milioi euro bideratu zituzten Oinarrizko Errentara, titular bakoitzeko 4.402 euroko gastua eginez. Pertsona batentzako prestazioaren zenbatekoak, azkenik, 2002. urteaz geroztik %24ko gehikuntza izan du, 2005eko 505 erotara iritsi arte (urteko LGSren %84,5aren baliokide). 2006. urtean zenbateko hori LGSren %87ra igo zen, eta 549,01 eurotara iritsi zen ondorengo taulan biltzen diren gehikuntzak kontuan izanik.

1. taula. Oinarrizko Errentaren bilakaera

	2002	2006	Igoera
Onuradunak	21.464	33.675	%56,99
Zenbatekoa	407,5 €	549,01 €	%34,7
Gastua (Milako €-tan)	82,9	153,7	%85,4

²¹ Gizarteratzeko euskal plana. 2005eko ebaluazioa.

Gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta, askotan agerian geratu da **EAEko Oinarrizko Errenta dela, diferentzia handiarekin, Estatuan gehien garatuta dagoen gutxieneko errenten eredua**, gutxieneko errenten sistemak neurri handi batean garatu dituzten erkidegoek –Nafarroa, Madril, Asturias edo Katalunia– erregistratzen dituztenetik erabat aldentzen diren estaldura-tasa, zenbateko eta gastuarekin²². Ez dago zalantzarik **EAEko Oinarrizko Errenta estatuko erreferentzia nagusia dela Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei dagokienez, eta eragin positiboak izan dituela –eragin negatibo garrantzitsurik ez da ikusi– pobrezia- eta bazterkeria-egoerarik larrienen euspenean eta prebentzioan.**

Bestalde, adieraz daiteke **euskal Oinarrizko Sarea Europako parametrotan kokatzen dela oinarrizko premien estaldurari eta horren zenbatekoari dagokienez**²³. Europako egoeraren azterketak erakusten du EAEko pertsona batentzako Oinarrizko Errenta Europako gutxieneko errenta gehienekin pareka daitekeela zenbatekoan eta pobrezia-aren atalaserako distantzian, eta horiek baino handiagoa dela GLLak kontuan hartzen badira. **Oinarrizko Errentak, gainera, Europako gainerako gutxieneko errenten sistemekin baldintzei loturiko oinarrizko ezaugarriak konpartitzen ditu, gizarteratzeko borondateari eta laneratzeko erabilgarritasunari dagokienez.**

Adierazi behar da, bestalde, Oinarrizko Errentak lehen adierazi den garapen-prozesu bat izan duela, **indar ekonomiko, sozial eta politikoen babes orokorrarekin**, oro har ereduaren ezaugarriekin bat etorri baitira. **Ia gizartearen osoa ere babes horrekin bat dator, %84k prestazio hori positibotzat edo oso positibotzat jotzen baitute**²⁴. Adierazi behar da, halaber, azken hilabeteetan Oinarrizko Errenta eztabaida politiko eta sozialerako gaia izan dela –eta bereziki haren zenbatekoa eta LGSrekiko lotura, baita adinari loturiko sarbide-mugak, 2003an 25etik 23 urtera jaitsi zirenak–. Oinarrizko Errentaren garapena, gainera, **mendetasun- eta kronifikazio-maila nahiko txikiak** mantenduz gauzatu da²⁵.

Oinarrizko Errentari buruz egin behar den oso balorazio onak ez du eragozten haren hainbat arazo eta disfuntzio aipatzea:

²² Gainerako Autonomia Erkidegoekin egindako konparazioak agerian uzten du gainera EAEk Estatukoa baino sistema ‘unibertsalistagoa’ garatu duela, estaldura handia eta jasotzaile bakoitzeko kopuru handia uztartzen dituelako.

²³ Dena dela, esan behar da zenbait herrialdetan laguntza horiek jasotzen dituztenek gure herrian ez dauden edo gutxi garatu diren beste gizarte-prestazio batzuk eskura ditzaketela.

²⁴ EAEko gizarte-laguntzei buruzko balorazioak, Ikerketa Soziologikoko Kabinetea, Eusko Jaurlaritzak, 2004.

- Laneratzea lortzeko eragozpenak. Ebaluazio-datuak agerian uzten dituzte Oinarrizko Errentak jasotzen dituztenek lan-merkatuan laneratzea lortzeko dituzten eragozpena. Hala ere jakina da laneratze zailtasunak ezin zaizkiela inplementatutako programen akatsei leporatu soilik, izan ere, lan-merkatuaren egoerak eragin argia baitu helburu honengan: lan-aldibaterakotasuna eta gutxien kualifikatuak diren enpleguen ordainketa-mailak inolako zalantzarik gabe oztopo handia dira jasotzaile horiek laguntza-sistematik ateratzeko.
- Horrez gain, **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek dagokien diagnostiko indibidualizatuko eta gizarte-laguntzerako lana egiterakoan askotan aurkitzen dituzten eragozpenak** agerian geratu dira, eta zailtasun horiek neurri batean Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzak toki-erakundeetan premialdiko langileak kontratatze ematen dituzten laguntzen bitartez –horien zenbatekoa eta jasotzaileen kopurua urtero handitu egin da²⁶– eta “Diagnostikoa eta Esku hartze Soziala” informatika-tresnaren garapenaren bitartez konpontzen dira ²⁷. Bestalde, **gizarteratzeko hitzarmenak, zeinen garapena oraindik nahi dena baino txikiagoa den, erabiltzaileen eta gizarte-laneko profesionalen aldetik positibotzat jotzen dira**²⁸. Edozein kasutan esan daiteke adierazitako bi arazoak –oinarrizko gizarte-zerbitzuen gehiegizko karga eta oinarrizko premien estalduraz haraindi gizarteratze-helburuak lortzeko zailtasuna– gure inguruko gutxieneko errenta-sistema gehienek dituztela (Nafarroa, Madril, Frantzia...).
- **Oinarrizko Errentaren estaldura ez da berdina EAeko hiru lurraldeetan, eta diferentzia horiek soilik zati batean justifikatzen dira lurralde bakoitzean pobrezia- edo langabezia-egoerek duten eragin handiagorekin, diferentziarik**

²⁵ Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzak emandako datuen arabera, egun prestazioa jasotzen dutenen %25 egonaldi luzekotzat edo oso luzekotzat har daitezke, 73 hileroko baino gehiago jaso dituztelako. %21ek 13 hilabete baino gutxiago metatu dituzte, eta %31k 13 eta 36 bitartean.

²⁶ 2005erako Gizarteratzeko Euskal Planaren datuen arabera, plana indarrean egon den hiru urteetan zehar guztira 15 milioi euro banatu dira laguntza horiekin, urtero 80 edo 90 toki-erakunde inguru horretaz baliatuz.

²⁷ Oinarrizko Errentaren ebaluazioak erakusten du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara destinatutako giza baliabideei loturiko akatsek oso eragin negatiboa dutela gizarteratze-prozesuen garapenean eta erabiltzaileen jarraipenerako aukeretan, eta horren ondorioz premia larrireneko kasuei erantzuten zaie soilik; bestalde, gizarte-langileek ezin dute behar bezala jardun beren zereginetan, administrazio- eta kudeaketa-zereginak egin behar izaten dituztelako. Nolanahi ere, aditzaera eman beharra dago Premialdiko Teknikarien Programaren eraginei buruzko balioespen positiboa egin dela, Programa horren bidez EAeko hainbat udalerritako egoera hobetu delako; era berean, modu positiboan balioetsi da arlo horretan hainbat Udal egiten ari den ahalegina, hain zuzen ere zeregin horiek bereizteko eta gizarteratze-arloan kualifikatuta dauden langileak batez ere jarduera horretara bideratzeko egiten ari diren ahalegina.

²⁸ Oinarrizko Errentaren Ebaluazioa, Eusko Jaurlaritzak, 2004.

handiena Foru Aldundi bakoitzean aplikatzen diren osagarri desberdinen ondorio baita.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) EAEn garatzen diren pobrezia-aren aurkako politika publikoen osagarri nagusietako bat dira. Gastuari dagokionez 2005ean EAeko Administrazioen multzoak laguntza horietara 30 milioi euro bideratu zituen, 2002. urtean baino %50 gehiago, eta 24.288 lagunek jaso zituzten laguntzak, 2002an baino %47,2 gehiago²⁹. 2006. urtean onuradunak 26.094 izan dira, eta aurrekontua 35 milioi euro, hau da, 2002an baino %57 gehiago. Ildo horretan ikus daiteke GLLen garrantzia ez dela soilik formalismo bat, baizik eta Euskadin pobrezia-aren aurkako borrokan diseinatutako arauzko ereduaren ezaugarrietako bat dela. Ez da osagarri marjinal bat, esku-hartzerako ereduaren elementu espezifikiko bat baizik, aurrekontu-dimentsio garrantzitsuekin³⁰.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eskaria asko handitu da azken urteetan, eta horri ez zaio pareko aurrekontu-zuzkidurarik gehitu; horrela, beharren estalduraren eskasia sortu du herritarrengan. Ereduan tentsio asko sortu dituen egoera horretan, aurrekontu-partidaren izaera mugatuak eta laguntzen duen arazoaren konplexutasunak eragina izan dute: Gizarte Larrialdietarako Laguntza gehienak ez badira destinatzen helburu puntualetara (horietarako diseinatu ziren), baizik eta egoera egonkorren estaldurara (batez ere alokairuen ordainketa), prestazioaren beraren izaera zalantzan jartzen da. Ildo horretan, **GLLek sistemaren puntu kritikoetako bat izaten jarraitzen dute**³¹, eta horren ondorioz beharrezkoa da hedadura handiagoa duten neurriak bideratzea hala gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat eskuragarriak diren etxebizitzak sustatzeko eta gizarteratzeko gutxieneko errenta jasotzen dutenei etxebizitzarekin erlazionatutako gastu estrukturaleri aurre egiteko aukera ematen dieten prestazio ekonomiko osagarrien sistema egonkor bat bideratuz, eta aldi berean GLLak ohiz kanpoko gastuen estaldurara bideratzeko aukera emanez.

Enpleguko politika aktiboak

²⁹ Gizarteratzeko Euskal Plana. 2005eko ebaluazioa. Behin-behineko datuak.

³⁰ Sanzo, L. La política de lucha contra la pobreza en Euskadi. Honako honetan: *Pobreza y exclusión: la "malla de seguridad" en España*. Madril, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, 2001.

³¹ Gizarteratzeko Euskal Plana. 2004ko ebaluazioa. Laburpen exekutiboa. Eusko Jaurlaritza, 2005.

Euskal erakundeetatik, diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko eta gizarteratzeko eta laneratzeko beharrezko baliabideetarako eskubidea bermatzeko xedez, **Oinarrizko Errenta jasotzen dutenei bereziki bideratutako enpleguko politika aktiboen garapenaren** aldeko apustua egin da. Horrela, honako programa hauen garapena oso positibotzat baloratu behar da:

- **Enplegurako pizgarriak:** Kalkulatzen da 2004. urtean Oinarrizko Errenta jasotzen zuten familia-unitateen %20 eta %25 bitarteko multzo batek pizgarriak jaso zituela, ehuneko horrek adibidez Frantziakoa bikoiztu egiten duela kontuan izanik. Laguntza horren kopuruaren gehikuntza, lehen adierazi den bezala, soldata baxuak jasotzen dituzten pertsona normalizatuen osagarri gisa gero eta gehiago erabiltzen direlako da. **Lan-merkatuan pertsona horiek jaso dezaketen soldataren antzekoak diren kopuruak ezartzeak izan dezakeen eragin negatiboa neutralizatzeko garaietan duen garrantzia, edonola ere, neurri batean oztopatuta geratzen da sistemaren nolabaiteko konplexutasun administratiboaren ondorioz.** Izan ere, esan daiteke ikuspegi administratibotik Oinarrizko Errentaren sistema ez dela egokitzen lan-merkatuarekin etenkako lotura duten pertsonen premietara, onuradunen zati handi bat osatzen duten arren.
- **Auzolan: 2005ean Auzolan programan 801 lagunek hartu zuten parte, 2002an baino %30 gehiago,** 2002 eta 2005 bitartean %103 handituz programara destinatutako diru-laguntzen zenbatekoa (8,14 milioi 2005ean). Datu horiek erakusten dute **programa kontsolidatzen ari dela, eta erabiltzaileen eta programaren kudeatzaileen aldetik gero eta harrera hobea duela**³². Egindako ebaluazioak erakusten du Auzolan programak gizarte- eta lan-inpaktu ona izan duela, izan ere, erabiltzaileen %73,2k gutxienez denbora jakin batean lan egin dute programan parte hartu ondoren. Bestalde, ebaluazio egin zen unean parte-hartzaileen %42,4 lanean ari ziren.
- **Laneratzeko enpresak:** Duela gutxi sortu den programa da. 2003 eta 2005 bitartean, emandako diru-laguntzen zenbatekoa 1,83 milioi eurotik 5,17 milioi eurora igaro da³³. Bilakaera hori positibotzat jo da. Laneratzeko enpresei laguntzeko programa ebaluatuta, ikusi da laneratzeko enpresetan beren zikloa amaitu dutenen %37,9k enplegu bat aurkitu dutela.

³² Gizarteratzeko Euskal Plana. 2005eko ebaluazioa.

Azpimarratu behar da 2005ean 14,5 milioi euro bideratu zirela gizarteratze programetara (Auzolan, laneratzeko enpresentzako diru-laguntzak, eta bestelako gizarteratze-programak), eta gizarteratzeko politika aktiboak EAEn ezarritako gizarteratzeko eta gizarte-babeseko erudian hartzen ari diren garrantzia erakusten du horrek. Hala eta guztiz ere, ez dago argi esparru horretan ahaleginak handitu egin behar diren ala ez.

Beste prestazio ekonomiko batzuk.

Azkenik, aipatu behar dira **Foru Aldundiek eta zenbait Udalek finantzatutako laguntzak**, egoera jakin batzuk osatzeko eta, hala badagokio, Oinarrizko Errenta edo GLLak jaso ezin dituzten edota laguntza horiek jaso arren LGS baino laguntza txikiagoak jasotzen dituzten kolektiboen beharrak betetzeko.

2005. urtean bakarrik, Arabako Foru Aldundiak 0,23 milioi euro bideratu zituen Premia Egoeretakako Laguntza Bereziatarara, eta 1,08 milioi pentsioen eta subsidioen jasotzaileek jasotako zenbatekoak osatzera (PAGAMI II). Bizkaiak, bestalde, 5,7 milioi bideratu zituen pentsioen eta Subsidioen Jasotzaileen Laguntza Indibidualetara, 10,8 milioi Oinarrizko Errentaren zenbatekoa osatzera (PAGAMI) eta 2,7 milioi gizarteratzeko laguntza bereziatarara³⁴. Guztira, **Plana indarrean egon den hiru urteetan Arabak eta Bizkaiak laguntza horietara 20 milioi euro inguru bideratu dituzte urtero**, eta horrek bazterkeriaren aurkako prestazio ekonomikoen gastuaren multzoan proportzio garrantzitsua hartzen du³⁵.

Behar horien estaldura euskal herritar guztien berme-sarea zabaltzen duen urrats positiboa den arren, bizi diren Lurraldean edo udalerrien arabera estaldura desberdina izateak elementu kezagarri bat sartzen du, egoera berdinek erantzun desberdinak jaso ditzaketelako, udalerri edo Lurralde bakoitzean eskura dauden baliabideen edo ezarritako politiken arabera³⁶. Ildo berean, kolektibo jakin batzuek jasotzen dituzten zenbatekoak osatzeko –eta askotan nekez bete daitezkeen– foru arauen onarpenak kezka-faktore bat sartzen du gutxieneko errenten sisteman, eta prestazioak parekatzen dituen eta, egoera partikularren arabera desberdintasuna sortzen duten urratsak egin daitezzen saihesten duen gizarte-itun bat beharrezkoa dela agerian uzten du.

³³ Gizarteratzeko Euskal Plana. 2005eko ebaluazioa.

³⁵ Gizarteratzeko Euskal Plana. 2005eko ebaluazioa.

³⁶ Gizarteratzeko Euskal Plana. 2004ko ebaluazioa. Laburpen exekutiboa. Eusko Jaurlaritza, 2005.

Gizarteratzeko espezializatutako gizarte-zerbitzuak

Gizarteratzeko I. Euskal Planak bere helburuen artean bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eta kolektiboek haien egoerari eta beharrei egokitutako arreta jaso dezaten lortzea ezartzen du, gizarte-zerbitzuetako sistemaren aldetik. Ildo horretan, oinarrizko gizarte-zerbitzuek gizarteratzerako prestazioen eta beste jardun batzuen kudeaketarako betetzen duten zeregin garrantzitsuaz gain, aipatu behar dira Gizarteratzeko Lehen Euskal Plana indarrean egon den hiru urteetan aurrerapenak egin direla gizarte-zerbitzu espezializatuen alorrean, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen premiei eta eskariei erantzun mota desberdinak zabaltzen eta indartzen joan diren neurrian. Foru Aldundiek kudeatu eta garatutako zerbitzuak eta prestazioak. Haurrei eta Nerabeei Arreta eskaintzeko Legeak edo Ezintasunak dituzten Pertsonak EAEko Lan Merkatu Arruntean Sartzeko Planak, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Planak, edo Eusko Jaurlaritzak droga-mendetasunen eta immigrazioaren alorrean landutako planek ere hori lortzen lagundu dute. Azpimarratzekoa da ere pobreziako eta gizarte-bazterkeriako egoerarik larrienei aurre egiteko maila desberdineko tresnak martxan jarri direla, zenbait kasutan irabazi-asmorik gabeko erakundeekin lankidetzan edo haien ekimenez.

Hala eta guztiz ere, EAEn gizarteratzeko zerbitzu espezializatuen garapenak zenbait gabezia eta zailtasun ditu, eta Gizarteratzeko II. Euskal Planak nolabait ere horiek kontuan izan beharko lituzke. Horietako bat, esparru horretan esku hartzen duten **agente desberdinen integrazioa eta koordinazioa** da, izan ere, gizarte-ongizatearen beste esparru batzuk baino sakabanatuagoa eta desberdinagoa delako. Era berean oso garrantzitsua da **zerbitzu espezializatu desberdinen garapena eta hedadura lurralde guzietan parekatuagoa egotea**, neurri batean lege-araudia zaharkituta dagoenez gero aldundiek eta udalek une bakoitzean erakusten duten borondatearen menpe baitaude. Beraz, komenigarria litzateke, gai horretan legeria egokitzearekin batera, erakunde eskudun guztien artean adostea lurralde eta udal bakoitzean eskaini beharreko zerbitzu espezializatuen estaldura, edukia eta betebeharrak, beti ere foru- eta toki-erakundeek gizarteratzearen eta gizarte-zerbitzuen alorrean beren politikak eta helburuak ezartzeko duten autonomia errespetatuz.

Gizarte-zerbitzu espezializatuen mapa hori ezartzeak aukera emango luke, alde batetik, herritarrek beren bizilekua kontuan izan gabe arreta-maila berdina jasotzeko eskubidea erabiltzeko, eta batez ere, gizarteratzeko prozesuak gidatzeaz arduratzen direnei beren lana egiteko behar dituzten baliabideak hornitzeko. Ildo horretan adieraz daiteke, **EAEn bizi diren eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen babes ekonomikoko**

zentzuzko maila lortu ondoren, kolektibo ahulenen arretarako behar adinako baliabide espezializatuen zuzkidura gizarteratzeko euskal sistemaren erronka nagusia dela gaur egun.

2.1.3. Gizarte-bazterkeriaren aurkako gastu publikoa: konparazioak Europar Batasunarekin.

Euskal administrazioek bazterkeriaren aurka borrokatzeko bideratzen duten gastu publikoa batzen bada, ikus daiteke **EAE iristen dela EB-15eko herrialdeek gai horretan egiten duten gastura, eta estatu-mailan egiten ahalegin ekonomikoa biztanleko gastuaren terminoetan hirukoiztu egiten duela**³⁷. Izan ere, EAeko gastua Europakoarekin parekatu daitekeen gizarte-babesaren esparru bakarra pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren esparrua da.

Euskadin gizarte-babesaren funtzio bakar batek (gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka) Europako gastu-maila lortzeak, baita gaingitzeak ere, agerian uzten du, lehen adierazi den bezala, GLLek eta Oinarrizko Errentak osatzen duten sistema –erkidego-mailan– estatu-mailan ezartzen diren gizarte-babesaren oinarrizko sistemak –Gizarte Segurantza eta, neurri txikiagoan, langabezia– konpentsatzen ari dela.

3. taula. Gizarte-babeserako eta bazterkeriaren aurkako gastua

	1	2	3	4
EAE	19,2	68	5.194	101,8
EB 15	28,3	101	6.926	100,6
EB 12	28,1	100	6.564	98,0
EB 25	28,0	100	6.012	86,9
Espainia	19,7	70	4.186	37,4

1. Gastua gizarte-babesean 2003an (BPGren %). 2. Gizarte-babeseko gastuaren ehuneko EB25eko batez bestekoarekin alderatuz, 2003an (EB25=100). 3. Gizarte-babeserako gastua biztanleko, 2003an (erosketa-ahalmenaren parekotasun-unitateetan). 4. Gizarte-bazterkeriaren alorrean egindako gastua biztanleko, 2003an (erosketa-ahalmenaren parekotasun-unitateetan). Iturria: Gizarte babesaren Kontua, EUSTAT 2006.

2.2 GIZARTERATZEKO LEHEN EUSKAL PLANAREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK ETA EKARPENAK

³⁷ BPGren ehunekoetan, pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren alorreko euskal gastua Europako parametroetara hurbiltzen da (BPGren %0,37, EBan dagoen %0,4ren aurrean). Hala eta guztiz ere, kontuan izaten bada datuak 2003. urtekoak

*Gizarteratzeko I. Euskal Planaren ebaluazioa. Etengabe eguneratzen ari den plan baten lorpenak eta zailtasunak*³⁸

Gizarteratzeko I. Euskal Planaren ebaluazioak eskubide bikoitzaren printzipioan oinarritutako bazterkeriaren aurkako borroka-ereduaren kontsolidazioa erakutsi du: baliabide propiorik ezean, bizirauteko premiei aurre egiteko behar adinako laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea, eta babes eta arreta pertsonalizatua jasotzeko eskubidea gizarteratzeko eta laneratzeko, jatorrizko gabeziak eta hutsuneak gainditzeko, pertsona autonomiadunagoa eta autoaskiagoa eginez lanaren bitartez diru-sarrerak lortzeko.

Inplikaturik dauden agenteek planari buruz egin duten balorazioa positiboa da. Oinarrizko Errentaren estaldura eta haren zenbatekoa, Auzolan programa, orientazio-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen hurbiltzea, oinarrizko gizarte-zerbitzuen indartzea, esku-hartzeen plangintzarako eta diagnostikorako tresnen eta metodologiaren garapena, informazio-sistemen eta prestazioak kudeatzeko sistemen hobekuntza, Hezkuntzan aniztasunarekiko arreta, Immigrazio Plana, asistentzia sanitarioa, positiboki baloratzen diren alderdiak dira.

Ebaluatzaileek esku-hartzeen diseinuari eta prozesuei dagozkien **aurrerapen esanguratsu** batzuk atzeman dituzte:

- **jardun-esparru bakoitzean zailtasun handienak dituzten kolektiboari arreta espezifikoaren garrantzia handitzea.** Planean bilduta dauden jardun-arloetako plan eta programa guztiek erakusten dute administrazioak kezkatuta daudela zailtasunik handienak dituzten erabiltzaileei, hau da, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta ona eskaintzeko. Hezkuntzatik Sanitateraino, Enplegu edo Etxebizitza Zerbitzuetatik igarota (Gizarte Zerbitzuen esparruan horien garapen logikoa barne), pertsona horien arretaren lehentasuna eta egokitzapena ezinbesteko bihurtzen ari da haien esku-hartzeetan.
- **laneratzeko eta gizarte-esparrua hurbiltzeko kezka.** Kezka hori Gizarte Zerbitzuen, Enpleguaren eta Prestakuntzaren esparruari badagokio ere, Planaren ikuspegi orokor

direla eta Euskadin 2004an eta 2005ean gizarte-bazterkerian gastua asko handitu dela, pentsa daiteke gaur egun alor honetan egiten den gastuak dagoeneko Europako maila gainditzen duela.

³⁸ Gizarteratzeko Euskal Plana. 2004ko ebaluazioa. Laburpen exekutiboa. Eusko Jaurlaritza, 2005.

honetan nabarmentzeko moduko aldaketa-faktorea dakar, arlo horietan eragiten ari den aldaketen sakontasuna kontuan hartuta.

- administrazio desberdinetako profesionalen tresnen eta lan-metodologiaren diseinuan parte hartzea eta laguntzea,
- **prozesuetan kalitatea bilatzea**, hala Plana kudeatu eta garatzen duten administrazioetan nola horiek lan egiten duten erakundeetan. Administrazioetan kalitatea kudeatzeko eredu desberdinen garapenak (EFQM...), edo izaera sozialeko erakundeekin lan-prozesuak zehazteak, esku-hartzeetan koordinazio eta egituraketa handiagoa bilatuz, esparru sozialean antolaketa eta prozesuak gero eta hobeto garatzen direla erakusten dute.

Identifikatutako alderdi kritikoen artean azpimarratu behar da GLLen izaeraren aldaketa; hasiera batean larrialdiko egoerarako sortu ziren, baina aldizkako laguntza bihurtu dira kontuan izanik etxebizitzarekin erlazionatutako arazoaren eragin handia, plana betearazi eta aplikatzeko prozesuan administrazio-esparru desberdinen koordinazioa hobetu beharra, prestazio ekonomiko eta zerbitzu jakin batzuetan dauden lurraldeen arteko desberdintasunak, administrazioek esparru horretan dituzten funtzio desberdinak hobeto definitu beharra, eta, azkenik, Planaren diseinuari buruzko zenbait alderdi eta planaren hedapenerako eta aplikazioaren eta betearazpenaren jarraipenerako mekanismoak.

Identifikatutako lerro horiek ereduaren sakoneko joerak dira, baina oraindik ere hobetzeko gune batzuk ageri dira:

- hasitako prozesuen ikuspegiak, oro har, egokitzat jo da, baina zenbait kasutan **zailtasunak ageri dira prozesuak ezartzerakoan, Planaren arlo jakin batzuen koordinazioari loturik bereziki**. Prozesuak aplikatzerakoan nabari den moteltasun hori entitateen egoera desberdinen ondorio da, eta, hortaz, komenigarria litzateke azterketa orokor bat egitea, inplikaturako entitate guztientzako lehentasun eta egutegi bideragarriak ezartzeko prozesuak ezartzeari dagokionez.
- etengabe egokitzeko eta hobetzeko prozesuetan esku-hartzeak ebaluatzea zaila bada ere, **ebaluazio-marko bat ezarri beharra dago ereduaren eragile nagusiekin**

aldez aurretik adostuta, eta informazioa biltzeko denbora zehaztu behar da, baita esparru bakoitzean aztertu beharreko oinarriko adierazleak ere, aurkitutako zailtasunak konpontzeko, eta, gainera, oso bestelakoak diren ebaluazio-prozesuetan ezinbestean parte hartu behar duten entitateei eredu egonkorra eskaintzeko.

Planaren helburua gizarteratzeko prozesuak errazten dituzten baliabideak sustatzea bada, adierazi behar da horiek estaltzeko ahalegin iraunkorra egin dela, eremuan aurrerapen esanguratsuak lortuz, beti ere izandako zailtasunak ahaztu gabe. Entitateen arteko koordinazioari eta kolaborazioari dagokienez, ebaluazioan atzeman da protokoloak, tresnak eta abar ezartzerakoan hainbat urrats egin direla. Alabaina, horien aplikazioa dinamika konplexuagoen eraginpean dago, eta litekeena da arlo hori etorkizunean gehien indartu beharreko arloa izatea.

Ohar horiek abiapuntutzat hartuta, Ebaluazioak honako proposamen hauek egiten ditu Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana garatzeko:

- sailen arteko eta erakundeen arteko batzordeak abian jartzea, edo idazkaritza tekniko bat ezartzea;
- Planaren edukien idazkuntza bateratuagoa;
- Planari erantsitako programa operatiboak idaztea Foru Aldundiek, zehaztasun-maila handiagoarekin gizarteratzearen alorrean dituzten helburuak proposatzeko;
- ebaluaziorako prozesu adostuak eta sistematizatuak ezartzea;
- prozesuen eta emaitzen adierazle bereiziak ezartzea;
- planaren hedapena hobetzea –bai neurriak eta helburuak baita emaitzak eta lorpenak ere– inplikaturako agenteen eta biztanle guztien artean.

2.3. BAZTERKERIAREN AURKA BORROKATZEKO POLITIKEN BILAKAERA EAEn ETA EUROPAKO TESTUINGURUAN

Ondoren, dokumentuak azken urteotan gure inguruko gizarte-politiken bilakaeraren ezaugarri izan diren eta, egindako diagnostikoaren arabera, Gizarteratzeko Erakunde arteko

II. Plan honen lerro estrategikoak formulatzeko garrantzitsutzat jotzen diren zenbait elementu aipatzen dira.

2.3.1. Eskubide bikoitzaren printzipioaren kontsolidazioa: gizarteratzeko eskubidea eta babes ekonomikorako eskubidea

Gizarteratzeko euskal sistema eskubide bikoitzeko eredu batean oinarritzen da: babes ekonomikorako eskubidea eta gizarteratzeko eta laneratzeko eskubidea.

Eskubide bikoitzaren printzipio honek, lehenik eta behin, gizarteratzeko gutxieneko errenten sistemek edo 'hirugarren belaunaldikoek'³⁹ sortu zirenetik izan duten filosofiari erantzuten dio, hau da, diru-sarrerak bermatzeko helburuaren eta gizarteratzeko eta laneratzeko helburuen lotura estua, Administrazioaren eta pertsona onuradunen artean kontratu espezifikoak sinatuz gauzatzen dena, bi alderdiek konpromisoak hartuz. Lotura hori abiapuntutzat hartuz, eskubide bikoitzaren printzipioak onartzen du, alde batetik, bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko baliabide ekonomikoak edukitzeko eskubidea, enpleguarekin edo gizarte-babeseko erregimenekin ezin direnean lortu, eta bestetik, laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatuak jasotzeko eskubidea⁴⁰. Bi eskubideak plan berean kokatzerakoan, prestazio ekonomikoa kasu guztietan gizarteratze-prozesuaren menpeko tresnatzat hartzeko joera hausten da, hori gutxieneko errenten zenbait sistemetan hala bazen ere.

Eskubide bikoitzeko ereduak, beraz, prestazio ekonomikoaren eta gizarteratze-jardueren artean erlazio berri bat ezartzen du, prozedura bereziak dituzten bi logika desberdin daudela onartuz. Bi eskubideak bereizteak zera dakar, prestazio ekonomikorako eskubidea bere baliabide ekonomikoen eskasiarekin erlazionatutako arazoa bakar bakarrik duten eta, beren borondatez kanpoko arrazoiengatik diru-sarreraren gutxieneko maila lortzen ez duten pertsonengana zabaltzen dela onartu beharra, onuradun horiek gizarte-bazterkeriako egoeran ez egon arren eta gizarteratzeko laguntzarik behar ez izan arren. Ildo horretan, adierazi da

³⁹ Pobreziaren arazoarekiko hurbiltze berri horren adierazle nagusia Frantzia 1988ko abenduan sartutako *Revenu Minimum d'Insertion* (RMI) da, gizarteratzeko gutxieneko errenten eredu berriaren lehen adibidea, orduz geroztik Europako herrialde askotara hedatu dena. Frantziako RMIa, ildo horretan, 80ko hamarkadan zehar mendebaldeko herrialdeetan kontsolidatzen den gutxieneko diru-sarreraren bermerako ereduaren paradigma berriaren lehen adierazpena, Europako erdialdean eta iparrean eta Ipar Amerikan hasiera batean ezarritako sistemen alternatiba gisa.

⁴⁰ Madrilgo Komunitateko Gizarteratzeko Gutxieneko Errentaren 15/2001 Legearen arabera, eskubide bikoitzaren printzipioa esplizituki ezartzen duena; bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko baliabideak lortzeko eskubidea gutxieneko diru-sarreraren bermerako prestazio ekonomikoaren bitartez gauzatzen da, eta gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza pertsonalizatueterako eskubidea gizarte-zerbitzuetako eta enplegu-programetan sartuz gauzatzen da, zerbitzuek eta onuradunek adostutako eta negoziatutako edukia duten gizarteratzeko programa indibidualen esparruan.

prestazio ekonomiko baterako eta gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza pertsonalizatuertarako eskubidea bananduta arautzeko proposamenaren inplikazio nagusia zera dela, esku-hartzeko bi tresna horien dinamika bananduta geratzen dela, eta zenbait kasutan esku-hartze mota bat edo bestea bananduta jaso ahal izango dela⁴¹.

Eskubide bikoitzaren ereduak, beraz, kontraprestazioan edo kontrapartidan eskusiboki oinarritutako gutxieneko errenten ikuspegia ezabatzen du –ez ordea baldintza eta elkarrekikotasun printzipioa–, prestazioa bere borondatez kanpoko arrazoiengatik diru-sarrerak ez dituenari ematen zaiolako, eta gainera ezinbesteko baldintza da prestaziorako eskubidearen unibertsalizazioan aurrera egiteko, prestazio ekonomikoa ez baita bakar bakarrik gizarteratzeko balizko prozesuei laguntzeko tresna gisa eratzten, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan ez dauden pertsonen prestazioa lortzeko aukera ematen dielako.

2.3.2. Unibertsalizazioa eta espezializazioa

Gizarteratzeko eta babes ekonomikorako eskubide bikoitzeko printzipio hori eta eskubideak banantzeko aukera onartzeak garrantzi berezia hartzen du gaur egungo testuinguruan, non herrialde askotan errenta-bermerako programen menpeko pertsonen ehunekoa handitzen ari den, eta, ondorioz, horien zirkunstantziei eta premiei loturik aniztasuna ere handitzen den. Dena dela, laguntza horiek jasotzen dituzten pertsona gehienak enplegua lortzeko eta/edo gizarteratzeko arazo larriak dituzten pertsonak dira, baina prestazio soldata baten edo beren premiei aurre egiteko nahikoa ez den prestazio ekonomiko baten osagarri gisa jasotzen duten pertsonen ehunekoa handitzen ari da⁴².

Testuinguru horretan –zeinean, arrazoi desberdinak direla medio, gutxieneko errenten onuradunen kopurua hazten den eta sistema berean gizarteratzeko laguntza espezializatuak behar dituzten pertsonak eta behar ez dituztenak elkartzen diren–, gutxieneko berme-sistemek unibertsalizaziorantz edota espezializaziorantz jo dezakete. Unibertsalizazioak RMI programan babes ekonomikoa behar duten pertsona guztiak barne hartzen ditu, haien gizarteratze-premiak alde batera utziz, profil bakoitzaren premietara egokitutako sarrera-baldintza eta -betebehar desberdinak ezarriz⁴³. Espezializazioak gizarteratzeko gutxieneko

⁴¹ Ruiz de Azúa, N. (dir.). Indicadores de pobreza y exclusión. Una propuesta desde una perspectiva de género. Instituto de la Mujer, MTAS, 2004.

⁴² Eusko Jaurlaritzaren Gizarteratze Sailburuordetzaren datuen arabera, Euskadin Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen ia laurden batek prestazioarekiko mendetasun ertaina edo baxua dute, hau da, familia-unitateak diru-sarrera propiorik izango ez baitu eskura zezaketen guttizko zenbatekoaren %40 baino gutxiago jasotzen dute.

⁴³ Bide horretatik ari da garatzen, *de facto*, gutxieneko errenten sistema EAEn.

errentak jatorrizko unitateetan –arazo ekonomikoak eta gizarteratzeko arazoak dituzten familia-unitateak– oinarritzen ditu, prestazioaren eta gizarteratzeko premien arteko lotura indartuz.

Baliteke aukerarik egokiena bi helburuak konbinatzea izango litzateke, gizarteratzeko gutxieneko errentak, gaur ezagutzen ditugun eran, beste errenta-iturririk ez duten eta/edo gizarteratzeko zailtasun handiak dituzten familia-unitateetan espezializatuz, alde batetik bertan tratamendu indibidualizatua indartuz, eta bestalde, batez ere premia ekonomikoak dituzten familia-unitateentzat errentak bermatzeko sistema alternatibo bat ezarriz, ez duelarik nahitaz Gizarte Zerbitzuen esparruan kokatuta egon behar, eta batez ere pertsona horiek kopuru txikiegiarekin jaso ditzaketen laneko edo beste edozein motatako diru-sarrerak osatzera bideratuz. Aukera horren kostua –seguru asko lehendik aipatu den unibertsalizazioarena baino askoz handiagoa izango ez dena– neurri handi batean prestazioaren indibidualizazio-mailaren eta bermatutako gutxieneko zenbatekoaren araberakoa izango litzateke.

Gutxieneko errenten sistemak prestazio ekonomiko txikiegien (alarguntsa, langabezia, PNC) onuradunen eta soldata txikiak jasotzen dituzten edo enplegu ezegonkorra duten pertsonen premiak estaltzea, bestalde, bat dator, EAEEn ezarritako eskumen-banaketaarekin, ez baitu Gizarte Segurantzaren alorreko eta langabeziagatiko prestazioen alorreko eskumenik, eta gainera EAEko gutxieneko errenten sistemak beste sistema horien zenbait gabezia bete behar ditu⁴⁴. Arazo horiek estaltzeak aukera emango luke, aldi berean, EAEk Europako herrialderik aurreratuenekin alderatuta esparru horretan dituen ongizate-gabeziako eta diru-sarrera baxuko terminoei loturiko diferentziala murrizteko aukera⁴⁵.

2.3.3. *Gizarte-politikak aktibatzea eta enplegua errentabilizatzea.*

70eko hamarkadaz geroztik hainbat herrialdeetako gizarte-politiketan eta enplegu-politiketan bazegoen arren, aktibazioa –hau da, alde batetik gizarte-babesaren eta, bestetik, lan-

⁴⁴Serge Paugam-ek proposatutako tipologia aplikatuz (Paugam, S. *Les formes élémentaires de la pauvreté*, PUF, 2005), esan daiteke langabeziagatiko eta gizarte-segurantzako prestazioak, gizarte-babesaren alorrean prestazio ekonomikoen zatirik handiena, eta estatu-mailan ezarrita daudenak, Euskadin *pobrezia integratuko* eredu batekin bat egiten dutela, non gizarte-babes publikoak zeregin txikia betetzen duen. Gutxieneko bermerako prestazioak, ordea, erkidego-mailan ezarrita daudenez, *pobrezia deskualifikatzaileko* eredu batekin bat datoz, zeinak, besteak beste, prestazio mota horren estaldura zabala duen.

⁴⁵ Aurrerago adierazten denez, EAEko pobrezia handi edo larriaren tasa (batez besteko errenta baliokidearen %40tik beherako diru-sarrerak jasotzen dituen biztanleriaren ehunekoa) EB-15aren batez bestekoa baina nahiko txikiagoa den bitartean (biztanleriaren %3,7), pobrezia-arriskuko tasa (batez besteko errenta baliokidearen %60) pixka bat txikiagoa besterik ez da.

partaidetzaren artean lotura bat sartzera edo indartzea– 90eko hamarkadan gizarte-politiken helburu nagusi bihurtu zen. Adituak bat datoz eta esaten dute ez dagoela aktibazio-eredu bakar bat eta helburu hori gauzatzeko aukeratutako formulak joera liberaleko *workfare*-etik hasi –batez ere zigorren eta denbora-muga zorrotzen ezarpenean oinarritzen dena– eta Eskandinaviako herrialdeetan aplikatzen diren politiketaraino, azken horiek zenbateko handiko prestazio unibertsalak eta enplegu- eta prestakuntza-programen eskaintza orokortua bateratuz. Nolanahi ere, azken urteotan gutxienez Europako dozena bat herrialdek legeria aldatu egin dute, prestazioaren baldintzazko izaera eta enplegua bilatzeko, prestakuntzako eta kontrataziorako laguntzak indartuz gutxienezko errentak jasotzen dituztenentzat eta, oro har, luzaroko langabeentzat.

EAEEn aplikatutako gizarte-politikek –eta bereziki Oinarrizko Errentaren inguruan eta gizarte-bazterkeriako gainerako politiken inguruan bideratzen direnek– sortu zirenetik aktibazioaren erronka bere gain hartu dute, Administrazioetik gizarteratzeko eta laneratzeko beharrezko laguntzak jasotzeko eskubide espezifikoak onartzeak adierazten duen bezala.

Gure inguruan aplikatutako aktibazioko neurri tradizionalekin batera (prestakuntza, orientazioa eta bitartekaritza, gizarte-enplegu babestua, kontrataziorako laguntzak, besteak beste), azken urteotan, laguntza-politikak aktibatzeke helburu horren barruan, gizarteratzea gutxienezko errenta jasotzen dutenentzat eta pertsona inaktiboentzat aukera erakargarria edo errentagarria bihurtzera bideratutako politiketara arreta berezia eskaini zaie. Esan daiteke politika horien garapena –*making work pay*⁴⁶ edo MWP izenaren barruan biltzen direnak– azken urteotako⁴⁷ berrietasun nagusia da mendebaldeko herrialdeetako gizarte-politikan, eta paradigma-aldaketa bat dakar, *welfare to work*-etik *welfare in work*-era pasatuz, lanpartaidetzari lotutako prestazio ekonomikoen garapenaren bitartez (*in work benefits*).

Horien garapena zati batean ‘pobreziaren tranparekin’ erlazionatuta dago, zeinaren bitartez enplegu batekin lor daitezkeen antzeko irabaziak dituzten laguntza-prestazioak lanik egin gabe jasotzeko aukerak prestazio horiek jasotzen dituztenak lan-merkatuan sar daitezen gogoia kentzen baitu⁴⁸. ‘Pobreziaren tranpa’⁴⁹ horren benetako eragina alde batera utziz,

⁴⁶ Gaztelaniaz zaila da adiera hori jatorrizkoan bezain ondo adieraztea, eta formula honela itzuliko litzateke: ‘lanak konpentsa dezan egitea’ edo ‘enpleguaren errentabilizazioa’.

⁴⁷ 2003tik aurrera, Enplegurako Politika Europarren esparruan, Europar Batasunaren Kontseiluak gomendatzen pizgarri fiskalak eta finantzarioak sartzera lana erakargarriagoa izan dadin, langile pobreen kopurua murriztuz eta, bidezko bada, langabeziaren, pobreziaren eta aktibitate ezaren tranpak ezabatuz, eta talde kaltetuek lan-merkatuan parte har dezaten bultzatuz, sistema fiskalen eta prestazio-sistemen berrikuspenaren --eta erreformaren-- bitartez.

⁴⁸ hainbat herrialdeetan gogorik ezaren ustezko eragina hausten saiatu dira, prestazioen erosteko ahalmen erreala izoztuz edo murriztuz, baina hori ez da egin EAEEn, eta Oinarrizko Errentak bermatzen dituen zenbatekoak antzekoak dira, eta zenbaitetan handiagoak, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan ezarritakoak baino.

politika horien garapenak, modu egokian egokitzen direnean, eragin positiboa izan dezake laneratzearen pizgarri gisa –hala gutxieneko errentak jasotzen dituztenena nola, modu orokorragoan aplikatzen direnean, kualifikazio baxuko langileena⁵⁰– eta, batez ere, soldata txikiak dituzten langileen errentaren eta babesaren banaketa berriari dagokionez, era horretan enpleguari pobrezia-aren aurkako babes gisa eta gizarteratzeko tresna paregabe gisa duen ahalmena itzuliz.

Neurri horien garapenak bereziki egokia dirudi EAEn, Oinarrizko Errentaren eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren arteko gero eta diferentzia txikiagoak distortsioak sor ditzakeelako prestazio horien eskaeran eta lan-merkatuaren funtzionamenduan. Laguntza mota horrek ekonomia formalean lanpostuen okupazioari lotzeak, gainera, deklaratu gabeko enplegua azaleratzen lagundu dezake. Gure inguruan neurri asko hartu dira⁵¹ gutxieneko errenten eta soldata-sarreraren arteko artikulazio hobea errazteko, baldintza hori beharrezkoa baita gizarte-politiken aktibazioa eta gutxieneko errenten unibertsalizazio handiagorako joera bateragarriak egiteko.

Aktibazioko eredu liberalarekin identifikatu diren arren, adierazi beharra dago "lana errentabilizatzeko" politika horien garapena eredu horrekin bat datorrela soilik modu bakarrean eta eskusiboki aplikatzen direlako eta horiekin prestazio ekonomikoen sistema, prestakuntza- eta enplegu-programak eta lan-merkatuko baldintzen gaineko beharrezko esku-hartzea ordeztu nahi direlako, eta ez direlako osagarri gisa erabili nahi. Horiek garatzerakoan –gainerako aktibazio-neurriak garatzen direnean bezala– kontuan izan behar da hainbat pertsona jadanik ez daudela, eta ez direla egongo lanpostu bat okupatzeko baldintzetan.

Prestazio horietako batzuk izan dituzten emaitza kezkarriak, eta bi helburu nagusiak –lan-merkatuako sarbiderako pizgarriak ematea eta lan-merkatuan pertsona okupatuaren artean pobrezia-arriskuaren eragina, edo intentsitatea, murriztea– bateragarri egiteko izaten ari diren zailtasuna kontuan izanik, beste herrialde batzuetan garatutako esperientziak eta horien

⁴⁹ Kontzeptuak muga handiak ditu, adibidez enplegua lortzetik eratorzen diren eta hertsiki ekonomikoak ez diren mozkinak –ongizate psikologikoa, estatusa, lan-esperientzia eskuratzea, eta abar– kontuan ez izatea, edo langabeziako testuinguru batean arazoa lanposturik ez egotea izatea eta ez lanpostuak okupatzeko borondatezko ukoa.

⁵⁰ beti, noski, enplegu-eskariko eta -eskaintzako gutxieneko baldintzak baldin badaude.

⁵¹ Besteak beste, EAEn Oinarrizko Errentaren eta GLLen jasotzaileei ematen zaizkien enplegurako pizgarriak, eta Frantzia, Erresuma Batuan, Estatu Batuetan eta beste hainbat herrialdetan aplikatzen diren soldata baxuko langileentzako zerga arintzeak, edo Oinarrizko Errenta unibertsalerako proposamenei normalki lotzen zaizkien espiritua eta mekanismoak nolabait ere konpartitzen dituzten 'osagarri atzerakoien' proposamenak. Ildo horretan, duela gutxi Frantzia egin den Solidaritate Diru-sarrera Aktiboaren proposamenak batez ere egungo enplegu-pizgarrien tresnetera hedatzea dakar, tresna horiek iraunkor eta diru-sarrera txikiak dituzten familientzat eskuragarri bihurtuz, gutxieneko errentak jasotzen dituzten ala ez berdin diolarik.

emaitzak zehatz-mehatz aztertu behar dira, baita gure inguruneko gizarte- eta lan-baldintzek horrelako programak aplikatzea zein neurritan gomendatzen duten aztertu ere.

2.3.4. Politika soziala eta politika fiskala teilkatzea

EAEEn politika fiskalaren eskumena Foru Aldundiek dute. Adierazi den bezala, gehien garatu diren 'lana errentabilizatzeko' hainbat politika, batez ere soldata baxuak dituzten langileentzat bideratutakoak, tributu-mekanismoen bitartez artikulatu dira, eta zehazkiago esanda, errentaren gaineko zergen bitartez. Orientazio hori bereziki argi dago herrialde anglosaxoietan (EITC Estatu Batuetan, WFTC Erresuma Batuan, eta abar.), baina gure ingurunean ere garatu da –zerga arintze tradizioaletatik aparte– .

Errenten bermerako politika horien garapenak mekanismo fiskalen bitartez –printzipioz Gizarte Zerbitzuen eta bazterkeriaren aurkako borrokaren tresnatik urrun daudenak– nekez aurreikus daitezkeen erronkak eta ondorioak planteatzen ditu. Horren erabilgarritasunaren balorazioa hala ere bidezkoa izan daiteke, lehen esan dugu bezala gutxieneko errenten sistemek gaur egun espezializazioaren eta unibertsalizazioaren artean egin behar duten aukera kontuan hartzen bada. Mekanismo horiek ere badirudi bat datozela lanaren diru-sarrerak osatzera eta ez ordea ordeztara orientatutako diru-sarrerak bermatzeko sistema bat eraikitze joera edo helburuarekin. Ikuspegi horretatik, lanaren eta prestazio ekonomikoen arteko lotura nabarmenagoa izan daiteke prestazio horiek enpleguaren munduarekin⁵² erlazionatutako sistema batean sartzen badira, adibidez fiskalean, eta ez ordea Gizarte Zerbitzuen esparruan jarraitzen badute. Gutxienezkoen bermearen prestazioak banatzeko mekanismo fiskalen erabilerak bi helburu ditu: alde batetik, laguntza horien jasotzaileek Gizarte Zerbitzuetara jotzeagatik jasan dezaketen estigmatizazioa saihestea, izan ere, estigmatizazio hori gertatzen baldin bada beste mekanismo batzuk sortu beharko baitira estigmatizazioa saihesteko, eta helburu nagusi gisa, soldata-osagarri gisa eraturako prestazioen jasotzea lanaren egitateari berari lotzea, eta funtsezko elementua da asistentzian oinarritutako mentalitatetik lanaren etikari lotutako mentalitatera igarotzeko.

Funtsean gizarte-bazterkeriako egoeran ez dauden pertsonen sistema fiskalaren bitartez diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzeak aldi berean aukera eman dezake gizarteratzeko gutxieneko errentak gizarteratze-prozesuei laguntzeko tresna gisa duen izaera gordetzeko, eta horrek era berean Gizarte Zerbitzuen metaketa arintzeko eragin positiboa izango luke. Horrek erraztuko luke, lehen adierazi den bezala, gizarteratzeko gutxieneko errenten

⁵² Gizarte Segurantzaren sistema ere enpleguaren munduarekin erabat lotuta dago, eta ikuspuntu horretatik prestazio horien probisorako erabil daiteke. Bere izaera ez kontributiboak, ordea, Gizarte Segurantzakoa bezalako izaera kontributiboko sistema batean sartzea oztopatzen du. EAEren testuinguruan, gainera, Gizarte Segurantzako eskumenak erkideko

espezializazioa eta diru-sarreraren bermerako euskal sistemaren osotasunaren unibertsalizazioa uztartzea, gizarteratzerako eta laneratzerako eskubidea eta babes ekonomikorako eskubidea bermatuz.

Bestalde, eta hau oso argudio garrantzitsua izan daiteke, sistema fiskalaren bitartez prestazio ekonomiko garbiak –zerga negatiboaren ideian oinarrituta eta, beraz, aitorpena egiten duen pertsonari urtean zehar egindako atxikipenenak baino txikiagoak edo handiagoak izan daitezkeenak– emateak, PFEZaren aitorpenean egiten diren egungo zerga arintzea eta kenkari askoren erregresibitatea murrizten lagundu dezakete, izan ere, diru-sarrera txikiak izateagatik aitorpena egiten ez duten edo oso kopuru txikiak kontura eman dituzten pertsonen ez die inolako mesederik egiten.

2.3.5. Laguntza-zerbitzuen garapena

Zenbait azterlanen arabera, egungo merkatu-baldintzetan enplegu bat mantentzea enplegu hori lortzea baino zailagoa da. Bestalde, enplegua lortzeak zenbaitetan gastu batzuk egin beharra dakar, eta gastu horiek nabarmen murriztu ditzakete, batez ere soldata txikiko enpleguak direnean, gizarteratzearen ondoriozko etekin garbiak. Gastu horiek funtsean garraioko eta haurrak zaintzeko premiekin eta arropa eta/edo materiala erosteko gastuekin erlazionatuta daude⁵³.

Bi kontsiderazio horien ondorioz, enplegu-planetan eta bazterkeriaren aurka borrokatzeko planetan sistema aurreratuagoak sartu dira, alde batetik gastu horien konpentsazioa ahalbidetzen dutelako –lehendik adierazitako enplegu-pizgarrien sistemen esparruan⁵⁴– eta bestetik, jarraipen- eta laguntza-sistemak ezartzen dituzte lanpostu baterako sarbidea gauzatu ondoren.

administrazioa transferitu ez direnez gero, alor horretan jarduteko marjina oso txikia da. Guztiz kontrakoa gertatzen da tributu-politiken esparruan.

⁵³ Esperientzia Ipar Amerikarrak, laneratzean egiten duen nabardurarekin, erakusten du kontuan izan behar dela gizarteratzeko politika aktiboak ez direla amaitzen lanpostua lortzen den unean: programa horietan parte hartzen duten pertsonen eta lortzen dituzten enpleguen ezaugarriak ikusita, ondoriozta daiteke egungo egoera ekonomikoan, lanpostua bilatzeko laguntzaz gain, pertsona horiek lanpostua mantentzeko laguntzak behar dituztela. Ikuspuntu horretatik, bereziki azpimarragarriak izan dira kalitatezko haur-arretako zerbitzuak bilatzera eta/edo ordaintzera bideratutako neurriak, eskola-adinean dauden seme eta alabak ezin zaindua –edo beste eragozpen puntual batzuk, adibidez garraiorik eza– enpleguaren aurrean oztopo gaindiezina izan ez dadin.

⁵⁴ Interesgarria da gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak jasotzen dituztenentzako enplegu-pizgarrientzako Frantziako lege berria, izan ere, RMItik igaro ondoren enplegua lortzen dutenei hiru hilabetetan zehar soldata eta prestazioa bateratzeko aukera emateaz eta ondorengo bederatzi hilabeteetan soldata-osagarri bat eskaintzeaz gain, enplegura itzultzeko mila euroko prima bat ezartze du kontratazio bakoitzeko, hain zuzen ere gastu horiek estaltzeko. Legeak, gainera, enplegu batean sartzeko gutxieneko errentak jasotzeari utzi dioten eta familia-erantzukizunak dituzten pertsonen hartzaindegian plaza gordetzeko betebeharra barne hartzen du.

2.3.6. Emakumeen laneratzeari lehentasuna ematea

Laneratzea "errentabilizatzeko" neurriak aplikatu beharrekin batera, enplegurako europar jarraibideek emakumeen okupazio-tasa handitu behar dela adierazten dute. Ildo horretan, ikerleek adierazi dute pobrezia murrizteko giltzarritako bat emakumeak lan-merkaturatzea dela, eta horren zuzeneko eragina izango luke zenbait kolektiboren bizi-baldintzetan, adibidez guraso bakarreko familietan, pobrezia-arriskua gertuago baitute.

Gizarte-zerbitzuen eta familiari laguntzeko beste hainbat zerbitzuren garapenak asko lagunduko dio emakumearen laneratzearen gehikuntzari, bi arrazoirengatik; lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuen eta arreta pertsonaleko zerbitzuen sektorean lanpostu-sorkuntza eta lanpostu-eskaintza handitzegatik, eta bigarren, etxez etxeko arreta-zerbitzuen, haurtzaindegien, ludoteken, egoitza-zerbitzuen eta eguneko zentroyen eskaintzaren bitartez emakumeek aurre egiten ohi dieten familiako kargak arintzeko laguntzak eskaintzeagatik, era horretan emakumeen laneratze-tasa handituz eta familiako eta laneko erantzukizunak uztartuz.

2.4. BABESEKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL EREDUA OINARRITZEN, DEFINITZEN ETA EGITURATZEN DUTEN PRINTZIPIOAK

Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunak iturri dituzten funtsezko ildoek gain, honako printzipio hauek dira plan honen oinarria:

- Jarraitutasuna. II. Plan honek Gizarteratzeko I. Euskal Planarekin hasitako plangintza kontsolidatzen du eta jarraitutasun-ildo bat ezartzen du –neurrien edukiari eta horiek gidatzen dituen filosofiari dagokienez– EAEko Administrazio publikoek azken urteotan garatu dituzten bazterkeriaren aurka borrokatzeko politikekin.

- **Enpleguaren zentralitatea gizarteratzeko tresna gisa.** Dokumentuan bildutako proposamenek errekonozitzen dute enpleguak oso zeregin garrantzitsua betetzen duela gure gizartean txertatzeko oinarritzko elementu gisa, eta egungo lan-merkatuak gehien kaltetzen dituen taldeen artean ematen diren langabezia-tasak eta kolektibo jakin batzuen inaktibitate-tasa handiak murrizteko. Hori dela medio, onartuz pertsona batzuentzat laneratzearen helburua oso urrun dagoela –eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-zerbitzu egokiak eta diru-sarrerak bermatzeko behar adinako zenbatekoa eta estaldura duten prestazioak merezi dituztela–, egindako proposamenen helburua da ahalik eta pertsona kopururik handiena lan-merkatuan sartzea, eta helburu horrekin koherentzian, gizarteratzeko faktore gisa duen ahalmena lan-merkatuari itzultzea.
- **Eskubide bikoitza.** Planaren helburua da gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko euskal ereduaren artikulazioa kontsolidatzea eskubide bikoitzaren ideiarekin inguruan, eta onartzen du, alde batetik, bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko baliabide ekonomikoak edukitzeko eskubidea, enpleguarekin edo gizarte-babeseko erregimenekin ezin direnean lortu, eta bestetik, laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatuak jasotzeko eskubidea. Planak, ildo horretan, babes ekonomikorako eskubidea eta gizarteratzeko eta laneratzeko eskubidea eraginkorki uztartu nahi ditu.
- **Berdintasuna zerbitzuak eta prestazioak baliatzeko.** Planean biltzen diren neurrien helburua da EAEko herritar guztiei bermatzea, bakoitzaren premia-mailaren arabera, gizarte-bazterkeriaren aurkako zerbitzuak eta prestazioak lortzeko eskubidea neurri berean gozatuko dutela generoa, adina, jatorria edo bizi direneko udalerria edo lurralde historikoa edozein izanik ere.
- **Unibertsaltasuna eta lehentasunezko arreta sektore behartsuenei.** Planean bildutako neurriak ezartzeko garaian, kolektibo jakin batzuei bideratutako neurri zehatzak ez sartzen saiatu gara, eta unibertsaltasun mailarik handiena bilatu dugu, edozein kasutan zerbitzuak eta prestazioak premia-egoeran daudela egiaztatzen dutenentzat mugatuz. Aldi berean, Planean bilduta dauden neurrien plangintzaren eta betearazpenaren

arduradunek kontuan izan behar dituzte pertsona behartsuenek neurri horiek eskuratzeko dituzten zailtasunak, eta neurri horiek askotan azken segurtasun-sare izaten direla. Bidezko diren neurrien bitartez, horien artean ekintza positibokoak ezinbestekoak izanik, botere publikoek bermatu behar dute pertsona behartsuenek baliabideak modu eraginkorrean erabili ahal izango dituztela, zerbitzuak eta baliabideak detekzioaren eta tratamenduaren unean arazo gehienak dituzten kolektiboetara iritsi daitezten.

- **Kalitatea eta baliabideen optimizazioa.** Planean dauden neurrien aplikazioan kalitatea, baliabideen aprobetxamendu ona eta prozeduren etengabeko hobekuntza bilatu behar dira, aien emaitzen jarraipenaren, fiskalizazioaren eta ebaluazioaren bitartez, gizarte-bazterkeriaren aurkako politikaren aplikazio zorrotza eta arduratsua lortzeko. Era berean, sektorean lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuek garatzen dituzten jardunbide egokien identifikazioan eta jarraipenean oinarrituta dago.
- **Legezketasun-printzipioa.** Planak, era berean, legezketasun-printzipioa aplikatzen du eta gizarteratzeari loturiko gaietan indarrean dagoen araudian eta dagoeneko onartuta dauden gainerako erakunde arteko Planetan bildutako xedapenak betetzen ditu.
- **Parte-hartzea.** Planak parte-hartze mailarik handienak sustatu nahi ditu gizarteratzeko eta laneratzeko esku-hartze eta prozesu guztietan, garrantzi berezia emanez erabiltzaileen erakundeei, batzordeei, elkartei, eta abar.
- **Genero-ikuspegia sartzea:** Planarekin desberdintasunak ezabatzeko helburu nagusia betetzen lagundu nahi da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko, eta, batez ere, pobrezia emakumeen artean duen eragin handiagoari aurre egiteko. Horretarako, planaren inplementazioan eta ebaluazioan, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, itxaropen eta premia desberdinak aktiboki eta sistematikoki kontuan izango dira.

3. BIGARREN ARDATZA: JARDUN ESTRATEGIKOA

Bigarren ardatzak Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Planaren helburu estrategiko eta operatiboak zehazten ditu⁵⁵, baita plan hori indarrean dagoen bitartean Administrazio desberdinek eta Eusko Jaurlaritzako Sail desberdinek pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan egingo dituzten jardunak ere. Bigarren Ardatza honetan deskribatutako neurrien eta jardunen azken helburua pobrezia larriaren eragina murriztea da, EAEko biztanleriaren %3,7tik %3ra.

Hiru zatitan banatuta dago kapitulua. Lehen zatian, Gizarte Babeseko Euskal Sistemari dagozkion helburuak eta jardunak zerrendatzen dira; bigarrenean, gizarte-babeseko sistema orokorreari dagozkienak, eta hirugarrenean, Planaren kudeaketarekin eta horren aplikazioaren eta eraginaren jarraipenarekin erlazionaturakoak.

3.1 Babeseko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari dagozkion helburuak eta jardunak

3.1.1 Lehen Helburu Estrategikoa. *Indarrean dagoen arau-esparrua egokitzzea, babes- eta gizarteratze-prozesuak ordenatu eta abalbidetzeko.*

3.1.1.1 Lehen Helburu Operatiboa: Babesteko eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak arautzen dituen araudia egokitzea, diru-sarreraren bermerako prestazioen arian ariko unibertsalizaziorako joera izateko, gizarteratzeko eta babeseko eremuak bereiziz eta espezifikatuz.

JARDUNAK
1. Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunak eratzten duten lege-esparrua berrikustea, bi arauen xedearen eta edukiaren arau-berrantolaketaren bitartez.
2. Arau-esparru orokorra aldatzetik eratorritako Dekretuak lantzea.

3.1.1.2 Bigarren Helburu Operatiboa: Babesteko eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak arautzen dituen araudia egokitzea, gizarte esku-hartze indibidualizatua bultzatzeko eta errazteko eta gizarteratzeko mekanismoak indartzeko.

⁵⁵ Jardun bakoitzaren garapena, eta horien neurri instrumentalak, erakunde arduradunak eta jarraipen-adierazleak Eranskinean kontsulta daitezke.

JARDUNAK
3. Premialdiko langileak kontratatze laguntza ekonomikoen banaketa arautzen duen Agindua aldatzea, Oinarrizko Errenta eta GLLak jasotzen dituztenekin gizarteratzeko hitzarmenak inplementatu dituzten eta laguntza pertsonalizatuko programak martxan jarri dituzten Udaletara bideratuz lehentasunez laguntzak, horretarako Diagnostiko eta Esku-hartze Sozialerako aplikazioa erabiliz.
4. Gizarteratzearen arloan jarduerak egiteko diru-laguntzak arautzen dituen Agindua aldatzea, GKEekin urte anitzeko hitzarmenak ezar daitezzen baimentzeko, bazterkeria handiko sektoreetan gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak kudea ditzaten, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuz eta haien lagungarri gisa.

3.1.2. Bigarren Helburu Estrategikoa. *Gizarteratzeko eta gizarte-babeseko politiken diagnostiko- eta jarraipen-sistema bateratu eta orokortzea.*

3.1.2.1 Lehen Helburu Operatiboa: Gizarte esku-hartze indibidualaren diagnostikatu eta planifikatzeko lana arintzeko, informazioa transmititzeko eta agente guztiak koordinatzeko beharrezkoak diren tresna teknikoak eta informatikoak garatzea eta zabaltzea, hala plangintza orokorraren mailan nola esku-hartze indibidualaren mailan.

JARDUNAK
5. “Diagnostiko eta Esku-hartze Soziala” tresnaren erabilera orokortzea Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoan, nahitaez aplikatuz gizarteratze-prozesuetan, sistema horretan gauzatzen diren tresnak estandarizatzeko prozesuen esparruan.
6. Gizarte.net gunean dagoen “Diagnostiko eta Esku-hartze Soziala” aplikazioa zabaltzea prestazioko eta gizarteratzeko eta laneratzeko programa guztietara.
7. Lankidetzeta-protokoloak orokortzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Lanbideko Orientabide Zerbitzuen eta INEMen artean.
8. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informaziorako Euskal Sistema garatzea, prestazio ekonomikoei buruzko informaziorako modulu espezifiko bat barne hartuz.
9. Informatika-aplikazio bat lantzea EAeko gizarteratzerako baliabideen mapa ezagutzeko, une bakoitzean eta lurralde bakoitzean eskura dauden baliabideekin, horiek lortzeko baldintzekin eta okupazio-mailarekin, sisteman barne hartutako informazioa eta “Diagnostiko eta Esku-hartze Soziala” aplikaziotik eratorritakoa lotuz.

3.1.2.2 Bigarren Helburu Operatiboa: Sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzea, ebaluazioak eta jardunen jarraipen sistematikoa eginez eta kalitate-planak aplikatuz.

JARDUNAK
10. Gizarteratzearen esparuan lan egiten dute zentro eta zerbitzuetan kalitate-tresnak sustatzea, baliabide materialak eta giza baliabideak hobeto aprobetxatu ahal izateko, eta garatutako zerbitzuen eta programen eraginkortasuna ebaluatzea ebaluazio-tekniken eta sistemaren etengabeko hobekuntzaren bitartez.
11. Oinarrizko Errentaren ebaluazio sistematikorako eredu bat diseinatzea, horren aplikazioa hobetuko duen erabaki-hartzea neurtu, kontrolatu, perfilatu eta orientatzeko aukera ematen duten ebaluazio-adierazleen definizioaren bitartez, eta jasotzaileen bilakaerari eta ezaugarriei buruzko aldizkako informazio-sistema bat eratuz, horren ebaluaziorako batez ere kontuan izanik Aldundietako eta Udaletako gizarteratzeko sekzioetako arduradunen irizpideak.

3.1.2.3 Hirugarren Helburu Operatiboa: Gizarteratzeko Euskal Planaren eta beste erakunde arteko eta sailen arteko plan batzuen artean koherentzia eta sinergiak bultzatzea.

JARDUNAK
12. Etengabeko koordinazioa bultzatzea Gizarteratzeko Erakunde arteko Planaren eta honako plan hauen artean: Enplegurako Erakunde arteko Plana, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana, Gizarte Politikak Ebaluatzeko Plana, Immigrazioko Euskal Plana eta Droga-mendetasunei buruzko Euskal Plana.
13. Foru Aldundiek eta, hala dagokionean, Udalek programa operatiboak idatz ditzaten bultzatzea, programa horietan gizarteratzeari loturik dituzten helburuak proposatzeko, eta horien bitartez adierazitako kolektiboen estaldura-maila homogeneoa bermatu ahal izateko.
14. Hiru Lurreko Historikoetako bakoitzean erakunde arteko mahaiak orokor daitezkeen bultzatzea, gizarte-bazterkeriaren aurkako eta gizarteratzeko politikak koordinatzeko.
15. EAEko espetxeetan kondena betetzen ari diren pertsonentzako Gizarte Zerbitzuen prestazioa bultzatzea, eta bereziki, neurri judizialak betetzen ari diren adingabe arau-hausleentzako Gizarte Zerbitzuen prestazioa bultzatzea.

3.1.3. Hirugarren Helburu Estrategikoa. *Kalitate-maila handiena lortzea prestazio ekonomikoetan, prestazio horiek premia-egoeran dauden bizikidetzaren unitate guztiei iritsiko zaizkienla bermatuz eta oinarrizko esku-hartze integrala sustatuz.*

3.1.3.1 Lehen Helburu Operatiboa: Oinarrizko errentaren orokortzerantz aurrera egitea.

JARDUNAK
16. Bizikidetzaren unitatea berriro definitzea, kontzeptua familia-nukleoaren errealitatera hurbilduz, nukleo batekoak ez diren etxe bateko pertsonak egoera jakin batzuetan bizikidetzaren unitate independentetzat har daitezela.
17. Oinarrizko Errentaren zenbatekoa LGSren %100era parekatzea 65 urtetik gorakoak diren eta Oinarrizko Errenta jasotzen dutenentzat eta premia-egoeran dauden adin horretatik beherako pentsiodunentzat.
18. Oinarrizko Errenta baliatzeko salbuespen berriak barnean hartzea adin-nagusientzat eta 23 urtetik beherakoentzat.
19. Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden guraso bakarreko familiei emandako babesak sakontzea, Oinarrizko Errentarekiko haborokin edo sorospen osagarri bat ezarriz, guraso bakarreko familientzako semeak eta alabak zaintzeko.
20. Gizarteratzeko zentroi buruz ezarritako Erabakiaren arauzko garapena.

4.1.3.2 Bigarren Helburu Operatiboa: Gizarteratze-errentak eta babes-errentak bereiztea eta espezializatzea.

JARDUNAK
21. Etxebizitzako prestazio osagarri bat ezartzea, eskubide gisa eraturta eta oinarritzko errenta jasotzen duten pertsonentzat, betiere aldizka-aldizka alokairuko etxebizitzagastuak edo ohiko etxebizitza edo alojamendua eskuratzeko eskaturiko kredituen interesen eta amortizazioaren ondoriozko gastuak aurkezten eta egiaztatzen badituzte.
22. Gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) asistentziako eta denborazko jatorrizko izaera indartzea, horrelako laguntzekin gaur egun ordaintzen diren edukien nondik norakoaren egokitzapena aparte utzi gabe, programa horiek nahikoa baliabiderek hornituz prestazio horiek finantzatzeko. Edonola ere, araudian kontuan hartzen ez den edozein premia-egoera Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan aztertu ahal izango da, dagozkion txostenak eginez eta Jarraipenerako Erakunde arteko Batzordera bidaliz, eta bertan irizpideak eta eskubidea oro har ezarriko dira.
23. Gizarteratze-prozesu puruak eta bestelako prozesu mistoak edo gizarte-babeseko prozesuak bereiztea, azken horientzat diru-sarreraren osagarri diren mekanismoak ezarri, kudeaketa automatizatuagoa, gardenagoa eta arinagoa lortzeko.

3.1.3.3 Hirugarren Helburu Operatiboa: Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen sistema harmonizatzea eta bateratzea EAEko hiru lurralde historikoetan.

JARDUNAK
24. Oinarritzko Errentaren sistema bateratzea hiru lurralde historikoetan, denetan administrazio-fiskalizazioko mekanismoak indartuz.
25. EAEko hiru lurraldeetan bazterkeria-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonen bideratutako ohiz kanpoko eta asistentziako laguntza desberdinak harmonizatzea.

3.1.4. Laugarren Helburu Estrategikoa. *Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako prestakuntza- eta enplegu-programak gehitzea eta hobetzea, eta pertsona horiek lan-merkatuan sartzeko eta atxikitzeko aukera sustatzea.*

3.1.4.1 Lehen Helburu Operatiboa: Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzat orain arte bereziki egin diren enplegu-politika aktiboak indartzea eta bultzatzea.

JARDUNAK
26. Gizarteratze-enpresen garapenari emandako laguntza indartzea.
27. Auzolan programari emandako laguntza indartzea.
28. Lankidetzeta-programak sustatzea Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren, ezintasunaren alorreko elkarten eta EAEko kokatuta dauden Enplegurako Zentro Berezien artean, arreta berezia eskainiz lan-merkatu arruntean sartzeko babesa duten enplegu-programen garapenari.
29. Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan kontratu egonkor eta kalitatezko baten bitartez sar daitezen sustatzea, enpresei pizgarri ekonomikoak emanez.

3.1.4.2. Bigarren Helburu Operatiboa: Enplegurako aktibazio-programa berriak sustatzea, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonek profil espezifikoetara destinatuta.

JARDUNAK
30. Prestakuntza eta enpleguko, laguntzako zerbitzu espezifikoak sortzeko eta familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko programa multifuntzionalak abiaraztea, bazterkeria-arrisku handiko sektoreei zuzendutakoak: guraso bakarreko familiak, kalitate baxuko lanak dituzten edo langabezia dauden gazte emantzipatuak, eta abar.
31. Gizarteratzeko arazorik handienak dituzten pertsonek gizarteratzeko eta laneratzeko programetan denbora gehiagoz jarrai dezaten ahalbidetzea.
32. Gizarteratzearen alorreko jarduerak egiteko diru-laguntzak arautzen dituen Agonduaren bitartez laguntzeko programak eta gizarteratzeko eta laneratzeko programak sustatzea erabateko bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat, eta bereziki sistema horretan kronifikatuta dauden Oinarrizko Errentaren jasotzaileentzat.
33. Familia-kargak dituzten eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden emakumeen eta/edo enplegu prekarioak dituzten gazte emantzipatuen laneratzeari laguntzeko zerbitzu espezifikoek sorkuntza sustatzea, semeen edo alaben eta haien laguntza behar duten eta haien kargura dauden beste pertsonek zaintza ahalbidetzeko.
34. Lankidetzaren protokoloak orokortzea Justiziarekin eta Gazte Justiziako Sistemarekin lankidetzan jarduteko zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen artean, Administrazio horren menpe dauden kolektiboen gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak errazteko (Atxilotuari Laguntza emateko Zerbitzuak (SAOS), Gizarteratzen laguntzeko Zerbitzuak (SAER), adingabeen arau-hausleentzako Hezkuntzako eta/edo Eguneko Arretarako Zentroak), hirugarren sektoreko erakundeek zeregina indartuz koordinazio- eta jarraipen-prozesuetan.
35. Gizarteratze Zuzendaritzaren laneratzeko programen eta Foru Aldundietako Prestakuntza eta Enplegu Zuzendaritzetako prestakuntza- eta enplegu-programen artean pasabideak sortzea.

3.1.4.3. Hirugarren Helburu Operatiboa: 'Enplegua errentabilizatzeko' politikak har daitezen sustatzea.

JARDUNAK
36. Diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonek lan-merkatutarako sarbidea bultzatzea, indarrean dagoen enplegurako estimuluen sistema eguneratuz.
37. Zenbait arrazoirengatik lanik egin gabe egon diren prestakuntza gutxiko pertsonek enplegua lor dezaten bultzatzea, lan-merkatuan sartzeagatik pizgarri puntualak ezarrita.
38. Soldata txikiak dituzten langileak babesteko beharrezko mekanismoak ezartzen jarraitzea, 19. jardunean aipatu diren diru-sarrerak osatzeko sistemen bitartez.

3.1.4.4. Laugarren Helburu Operatiboa: Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak laneratzera destinatutako ekimenak garatzea eta bideratzea ahalbidetzen duten mekanismoak praktikan jar daitezen sustatzea.

JARDUNAK
<p>39. Gizarteratzeko eta laneratzeko baliabide berrien garapena sustatzea finantzaketaren esparrutik, 'banka etikoa' izen orokorrarekin barne hartzen diren tresnei arreta berezia eskainiz, alde batetik gizarteratzearen alorrean lan egiten duten erakundeek fondoak erakartzeko sistemak zabaltzeko, eta bestetik, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen mikro kredituen bitartez ohiz kanpoko fondo ekonomikoetarako sarbidea errazteko.</p>
<p>40. EAEko administrazio publikoetan gizarte-klausulak sartzea, alde aurreko baldintza, ebaluazio-elementu edo nahitaezko elementu gisa honako hauek sarituz: a) gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsona kopuru jakin bat kontrataziorako aukera duten enpresen plantilletan sartzea; b) enpresak produkzio-prozesuaren zati bat irabazi-asmorik gabeko erakundeek azpikontratatzeko, eta batez ere gizarteratzeko enpresei; c) erakunde lehiakidearen izaera kontuan izatea, irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat eta, bereziki, gizarteratzeko enpresentzat ekintza positiboko irizpideak sartuz.</p>

3.2. Gizarte-babeseko sistema orokorreari dagozkien helburuak eta jardunak

3.2.1. Lehen Helburu Estrategikoa. *Gizarte-zerbitzuen euskal sistema publikotik egiten den esku-hartzea hobetu eta indartzea.*

3.2.1.1 Lehen Helburu Operatiboa: Euskal hiritarrek gizarte-zerbitzuen sistema publikora duten sarbidea arautzea, unibertsaltzat definitzen diren zerbitzu eta prestazioetarako eskubide subjektiboa bermatuz, baita beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak, materiala eta giza baliabideak ere.

JARDUNAK
<p>41. Gizarte-zerbitzuen Lege berri bat onartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - EAEko herritarrek Legeak unibertsaltzat definitzen dituen prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide objektiboa onartuko eta arautuko duena. - Zerbitzu Katalogo baten esparruan prestazio eta zerbitzu bakoitzaren izaera eta tipologia arautuko duena; eta - gizarte-zerbitzuei giza baliabideen eta baliabide tekniko eta ekonomikoen zuzkidura egokia egiteko oinarriak ezarriko dituen.
<p>42. Hiru lurralde historikoetan bazterkeria-arriskurik handienean dauden kolektiboak (adibidez etxerik gabeko pertsonak, babesik gabeko egoeran dauden adingabeak, guraso bakarreko bizikidetzak-unitatea, gutxiengo etnikoak, etorkinak, genero-indarkeriaren biktimak, prostituzioan diharduten pertsonak, espetxeratutako edo espetxetik ateratako pertsonak, edo toxikomaniak dituzten pertsonak) zuzendutako oinarriko gizarte-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzu espezializatuen zuzkidura eta estaldurari dagokionez maila egokia bermatzen duen arau-garapena egitea.</p>

3.2.1.2 Bigarren Helburu Operatiboa: Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoa indartzea, herritarren premiei eta eskariei hobeto erantzuteko.

JARDUNAK
43. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen indartze orokorra
44. Gizarte Zerbitzuei buruzko informazio-sistema bat garatzea.
45. Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren tresnen estandarizazioa.
46. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa lantzea.

3.2.2. Bigarren Helburu Estrategikoa. *Gizarte-babeseko gainerako sistemetatik egiten den bazterkeriaren aurkako esku-hartze integrala hobetzea eta indartzea*

3.2.2.1 Lehen Helburu Operatiboa: Sanitate-sistematik gizarteratzearen alorrean egiten den esku-hartzea hobetu eta indartzea.

JARDUNAK
47. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin komunikatzeko sistema bat garatzea, gizarte-diagnostikoan eta gizarteratzeko hitzarmenetan osasunarekin erlazionaturako alderdiei buruzko informazioa bateratzeko.
48. Sanitatearen esparrutik gauzatzen diren eta baztertuta dauden edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen eta kolektiboen gizarteratzera bideratzen diren jardun espezifikoak garatzen jarraitzea. Ildo horretan, honako hauek azpimarra daitezke, besteak beste: <p style="margin-left: 40px;">Gaixotasun baliogabetzaileak eta potentzialki baztertzailak dituzten familia eta pertsonentzako laguntzak.</p> <p style="margin-left: 40px;">EAEn egiten diren tratamenduetan porrot egin duten toxikomanoentzako laguntzak, EAetik kanpo komunitate terapeutikoetan tratamendua jaso dezaten.</p> <p style="margin-left: 40px;">Metadona-programaren finantzaketa.</p> <p style="margin-left: 40px;">Gaixotasun infekziosoak dituzten talde marjinaleri laguntzea</p> <p style="margin-left: 40px;">HIESaren prebentzioaren nahiz asistentziaren alorrean lan egiten duten elkarteei laguntzea</p> <p>Sanitate Sistemak gizarteratzeko arazorik handienak dituzten edo bazterkeria-arriskuan dauden talde eta kolektiboei aplikatzen dizkien programa desberdinak egokitzea, garatzea eta bateratzea.</p>

49. Osasunari loturiko gizarte-desberdintasunen banaketa hobeto ezagutzeko eta horien bilakaera monitorizatzeko aukera ematen duten informazio-sistemen garapenari lehentasuna ematea, eta, sistema horien garapenak ahalbidetzen duen neurrian, EAEn eskaintzen den sanitate-arretaren ekitatea aztertzea.

50. Plan Estrategiko Soziosanitarioa garatzea, gainerako area arduradunekin koordinazioa hobetuz, helburu orokorrak eta espezifikoak lortzeko. Ildo horretan, horien ezarpenak barne hartzen dituen lau helburu estrategikoak honako hauek dira:

1. Premia soziosanitarioak dituzten atenditutako pertsonen kopurua handitzea.
2. Erabiltzaileei eta haien familiei satisfaziorik handiena emango dien kalitatezko arreta lortzea.
3. Arreta-sistema bakarra eta bateratua lortzea bi zerbitzu-sareen artean: gizarte-sarea eta sanitate-sarea.
4. Etorkizunean bikaintasun-mailari eustea.

Planak lehenesten dituen jardun guztiak bazterkeria-arriskuan dauden honako talde hauetara bideratuta daude:

- a) Laguntza behar duten pertsona helduak:
 - Mendekotasun funtzional handiarekin,
 - Dementia aurreratuekin
 - Mendekotasun arin edo handiarekin eta konplexutasun klinikoarekin.
- b) pertsona ezinduak:
 - Ezintasun fisiko baliogabetzailearekin (ezintasun handiak)
 - Ezintasun intelektualarekin eta horri loturiko gaixotasun mentalarekin
- c) Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak:
 - Gaixotasun mental larri eta kronifikatuarekin
 - Toxikomaniekin
- d) Gaixotasun somatiko kronikoak eta/edo baliogabetzaileak dituzten pertsonak:
 - Gaixotasun neurodegeneratiboekin,
 - Gaixotasun organikoarekin,
 - Kalte zerebralarekin
 - Patologia infekzioso emergenteekin
- e) Gaixotasun terminalak dituzten pertsonak.
- f) Bazterkeria-arriskuan dauden beste kolektibo batzuk
 - Adingabeak (batez ere tratu txarrak jasan dituzten adingabeak, babesik gabeko egoeran daudenak eta portaera-arazoak dituztenak),
 - Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak,
 - Arreta sanitarioaren premia eta gizarte-arazoak dituzten etorkinak.

3.2.2.2 Bigarren Helburu Operatiboa: Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonengana bideratutako etxebizitza-politikak hobetzea eta indartzea.

JARDUNAK
51. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin komunikatzeko sistema bat garatzea, gizarte-diagnostikoan eta gizarteratzeko hitzarmenetan etxebizitzarekin erlazioatutako alderdiei buruzko informazioa bateratzeko.
52. Etxebizitza egokia ez duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen babes ofizialeko etxebizitzaren programa sozialetara sarbidea izan dezaten erraztea, gizarteratze- eta laneratze-prozesuen sendotzea errazteko. <ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza babestuko programa sozialetan izen eman dezaten ahalbidetuz. • Zenbait kolektiborentzat, adibidez guraso bakarreko familientzat, lehentasunak ezarri. • Bizigune programa indartuz, eta horrela 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planean horri buruz ezarritakoa betez.
53. Gizarteratze-prozesuei laguntzeko etxebizitza- eta alojamendu-parke bat egon dadin laguntzea.

3.2.2.3 Hirugarren Helburu Operatiboa: Hezkuntza-zerbitzuak gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen premietara egokitzen laguntzea.

54. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin komunikatzeko sistema bat garatzea, gizarte-diagnostikoan eta gizarteratzeko hitzarmenetan hezkuntzaren alderdiekin erlazioatutako alderdiei buruzko informazioa bateratzeko.
55. Eskola-absentismoa murriztera, ikasle etorkinei harrera egitera eta gizarte-desabantaila egoeran dauden ikaslerik gehienak dituzten ikastetxei baliabideak hornitzera bideratutako programak indartzea.
56. Absentismoa, eskola-porrotaren maila eta abar handiagoak dituzten ikastetxeetan kontzentratzea ahaleginak, hezkuntza-errefortzuekin eta hezkuntzako esku-hartze espezifiko proiektuekin.
57. Hezkuntzaren eta laguntzaren eskariaren estaldura handitzen jarraitzea 0 urtetik 2 urtera bitarteko tartean.
58. Ikaslerik kaltetuenei emandako laguntza hobetzea beketarako aukera handituz eta eskolaz kanpoko jardueren gastuetarako laguntzak emanez, baita testuliburuak berriro erabiltzeko programaren bitartez ere.
59. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Osasun Sailak gaixotasunei loturiko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretari buruz emandako Zirkularra inplementatzea eta garatzea.

3.2.2.4 Laugarren Helburu Operatiboa: Justizia Administrazioetik bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin egiten diren jardunak hobetzea eta indartzea.

JARDUNAK
60. EAEn bizi diren etorkin guztien administrazio-erregularizazioa errazteko mekanismoen harrera sustatzea, erregularizatuta ez egoteagatik beren oinarrizko gizarte-eskubideak ezin baitituzte bete.
61. Zigorren betetze alternatiborako beharrezkoak diren zentroen eta ekipamenduen egokitzapena garatzea, gainerako erakunde eskudunekin koordinatuz.
62. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta espetxeetako gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa sustatzea, espetxetik ateratzerakoan edo hirugarren gradua lortzerakoan gizarteratzeko eta laneratzeko programa espezifikoetara bideratzeko.
63. Gizarte-errolatzerako sistemak erregulatzeko aukera aztertzea, horien bitartez eta baldintza jakin batzuetan gizarte-zerbitzuetako zentroetan errolatzeko, eta errolatze hori baliozkoa izanik laguntza ekonomikoen emateari eta beste zenbait laguntzari dagokienez.

3.3. Planaren kudeaketari eta haren aplikazioaren eta inpaktuaren jarraipenari loturiko helburuak eta jardunak.

3.3.1. **Lehen Helburu Estrategikoa.** *Plana kudeatzeko tresnak hobetzea eta jarraipeneko eta ebaluazijoko adierazle erkideak garatzea.*

3.3.1.1 Lehen Helburu Operatiboa: Gizarteratzeko II. Euskal Planari beharrezko tresnak hornitzea behar bezala kudeatzeko.

JARDUNAK
64. Gizarteratzeko Planaren Idazkaritza Tekniko bat ezartzea, edota antzeko organismo bat, bertan biltzen diren neurrien aplikazioaren jarraipenaz, emaitzen adierazleen definizioaz eta horien jarraipenaz arduratuko dena.
65. Gizarteratzeari buruzko Sailen arteko, Erakunde arteko eta Batzorde Iraunkorra aktibatzea, gizarteratzeko esku-hartze eta prozesu guztietan parte-hartze maila handiagoak bultzatuz.
66. EAEn gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren alorrean egiten diren jardunbide egokien identifikazioa eta jarraipena ahalbidetzen duten neurriak ezartzea, baita horien emaitzak hedatzea eta beren funtsezko elementuak sare osora zabaltzea ere.

3.3.1.2 Bigarren Helburu Operatiboa: pobreziarekin eta gizarte-bazterkeriarekin erlazionatutako faktoreek EAEn duten eragina eta horren bilakaera erregularoki ebaluatzea.

JARDUNAK
67. Adierazle-katalogo bat definitzea, neurri batean Europar batasunean ezarritakoetan oinarrituta, EAEn gizarte-bazterkeriarekin eta pobreziarekin zuzenean erlazionatutako fenomenoek eta problematikek duten bilakaera aldizka ebaluatzeko.
68. Ikerketa-programa bat ezartzea, pobrezia- eta bazterkeria-egoeretan eragiten duten alderdiei eta horiei aurre egiteko aplikatutako politikei dagokienez.
69. Erkidego mailako mikrosimulaziorako eredu bat lantzea, pobreziaren, desberdintasunen eta/edo gastu publikoaren adierazleetan prestazio ekonomikoen eta zerga-betebeharren alorreko erreformak sartzek izango dituen eraginak aurreikusteko.
70. Bitarteko ebaluazio bat tresnaren erabilera orokorra ezagutzeko gizarteratze- eta laneratze-prozesuen jarraipenerako helburuari dagokionez, neurri zuzentzaileak abiarazteko laneratzearen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzeko, kasuak kasu.

4. BABESARI ETA GIZARTERATZEARI BURUZKO HELBURUEN ETA JARDUN ESPEZIFIKOEN KOSTUAREN KALKULUA

	2007. urtea	2008. urtea	2009. urtea	Batura (eurotan) 2007-2009
OB	182.520.000	200.360.000	213.650.000	596.530.000
Etxebizitzako osagarria	1.000.000	47.628.000	51.948.000	100.576.000
GLL	31.500.000	15.750.000	16.550.000	63.800.000
Gizarteratze-hitzarmenak. Premialdiko langileak	5.500.000	5.665.000	5.834.950	16.999.950
Auzolan	7.840.511	8.075.726	8.317.998	24.234.235
Laneratze enpresak	7.481.645	7.714.094	7.953.837	23.149.576
Gizarteratze-jarduerak	1.500.000	1.545.000	1.591.350	4.636.350
Batura	237.342.156	286.737.820	305.846.135	829.926.111
Pentsioen osagarria		6.603.000	31.973.000	38.576.000
Guraso bakarrek		3.734.400	4.012.800	7.747.200
Guraso bakarrekentzako zerbitzuak	200.000	600.000	618.000	1.418.000
Hitzarmenak Enplegu Zentro Bereziekin	300.000	900.000	900.000	2.100.000
Erreminta Diagnostikoa (PESI)	140.000	146.000	152.000	438.000
Batura	640.000	11.983.400	37.655.800	50.279.200
Guztira	237.982.156	298.721.220	343.501.935	880.205.311

5. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO ADIERAZLE KOMUNEN GARAPENA

Jarraipen- eta ebaluazio-adierazle komun garapena

Koordinazio Metodo Irekiaren esparruan Europar Batasunak gizarte-bazterkeriaren aurkako politiken estatuko eta estatuz gairako plangintzan duen gero eta garrantzi handiagoaren ondorioz, bazterkeriaren fenomenoaren jarraipena egiteko eta hori ezabatzea bideratutako politiken eragina ebaluatzeko adierazle sistemak komun bat garatu da. Ildo horretan, Nizako eta Laekeneko Europako Kontseiluetatik abiatuz Europar Batasuneko herrialde guztietan adierazle komun taula bat definitzeko –eta EAE mailan garatutako gizarte-bazterkeria ebaluatzeko sistemen garapenak⁵⁶– politika horien aplikazioaren arduradunei aukera ematen diete politika horien eragina eta fenomenoaren bilakaera baloratzeko erreferentziako sistema bat edukitzeko.

Abiapuntu horrekin eta Gizarteratzeko II. Euskal Plana lantzeko, adierazle-katalogo bat landu da, neurri batean Europar Batasunekoan oinarrituta, eta gure errealitate sozioekonomikoaren arabera garrantzitsuak eta gure inguruan egiten diren estatistika-eragiketen eta ikerketen bitartez eskuragarriak izango dira adierazle horiek. Bigarren urratsa izango litzateke adierazle horiek abiapuntutzat hartuz gutxienezko helburu edo erreferentzia batzuk adostuta ezartzea, datozen urteotan gertatzen den bilakaera erreferentzia horien arabera baloratzeko. Sistema horiek Plan honetan bildutako neurrien ebaluazioa ordeztu ezin duten arren, ezta horren eragina neurtu ere ez *ad hoc* adierazle bitartez, horiek erabiltzea komenigarria da alor horretan EAEk izan dezakeen bilakaera eta inguruko beste herrialdeekin egon daitezkeen diferentziak detektatzeko. Horren erabilerak aukera ematen du metodologia-esparru sendoa aprobetxatzeko, Europar Batasunean lortutako helburuekin eta egindako neurriekin kontraste hobea errazteko eta, azken finean, bazterkeriaren aurkako euskal politiken plangintza Europan alor horretan dauden politiken testuinguruan erabat txertatzeko.

⁵⁶ Ikus Gizarte Bazterkeria eta Gizarteratze Prozesuen Behatokiaren lanak.

Jardunbide egokien identifikazioa eta jarraipena azpimarratzea

Aipatu berri dugun Koordinazio Metodo Irekiaren esparruan, garrantzi berezia hartu dute gizarteratzearen alorreko ‘Jardunbide Egokien’ identifikazioak eta jarraipenak. Koordinazio Metodo Irekiak, ildo horretan, ahalbidetu du Batzordeak, Elkartekideek eta gizarte-bazterkeriaren aurkako politiken definizioan inplikaturik dauden beste zenbait eragilek esperientziak trukatzeko eta jardunbide egoki horien analisiak eta jarraipenak dakarten elkarrekiko ikaskuntzaz baliatzea.

Gizarteratzeari buruzko I. Euskal Planak jardunbide egokien adibideak jartzen ez zituen eta horien garrantzia bereziki adierazten ez zuen arren, komenigarria dirudi –berriz ere bazterkeriaren aurkako euskal politikak Europako politiken testuinguruan txertatzeko– II. Plan honen esparruan jardun-ildo bat ezartzea, beste testuinguru batzuetan txertatzeko aukeraren, lortutako emaitzen edo ebaluagarritasun-mailaren irizpideen arabera Euskadin gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan ‘Jardunbide Egokiaren’ adibide gisa har daitezkeen programak eta esperientziak identifikatzeko eta hedatzeko aukera emango duena.

- EAEn gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren alorrean egiten diren jardunbide egokien identifikazioa eta jarraipena ahalbidetzen duten neurriak ezartzea, baita horien emaitzak hedatzea eta beren funtsezko elementuak sare osora zabaltzea ere.
- Gizarteratzeko Planaren Idazkaritza Tekniko bat ezartzea, edota antzeko organismo bat, bertan biltzen diren neurrien aplikazioaren jarraipenaz, emaitzen adierazleen definizioaz eta horien jarraipenaz arduratuko dena.
- Gizarteratzeari buruzko Sailen arteko, Erakunde arteko eta Batzorde Iraunkorra aktibatzea, gizarteratzeko esku-hartze eta prozesu guztietan parte-hartze maila handiagoak bultzatuz.

- Gizarteratzearen esparruan esku hartzen duten erakundeekin koordinatutako lanaren jarraitasuna eta efizientzia bermatzen duten bestelako lankidetzamekanismoak martxan jartzea.

1. ERANSKINA

2007-2009ko GIZARTERATZEARI BURUZKO II. EUSKAL PLANAREN HELBURUAK ETA JARDUNAK.

Ondorengo orrietan 2007-2009ko Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana xehatuta agertzen da, Helburu Estrategikoak, Helburu Operatiboak eta aurreikusitako jardunak zehaztuz. Taulak behar bezala ulertzeko beharrezkoa da honako alderdi hauek kontuan izatea:

- Taula bat dago helburu Estrategiko bakoitzarentzat. Guztira, zazpi oinarrizko Helburu Estrategiko ezarri dira. Bakoitzaren barruan, zenbait Helburu Operatibo (guztira 19) eta Jardun (70) ezarri dira.
- Jardunek, Helburu Operatiboak errealitate bihurtzeko hartu beharko diren neurrien oinarrizko orientabidea deskribatzen dute. Zenbait kasutan, adierazitako jardunek zenbait neurri espezifikoko biltzen dituzte, izaera instrumentalagoa dutenak. Beste zenbait kasutan, uste izan da planteatzen den jarduna ez dela gehiago zehaztu behar.
- Aurreikusitako jardun bakoitzari dagokionez, taulan adierazten dira jardun hori bakarrik edo beste batzuekin koordinatuta burutzeko ardura duten erakundeak edo Eusko Jaurlaritzako Sailak. Jardun jakin batean erakunde edo sail bat baino gehiago daudenean, lehendabizi jardun horretan lidergoa izango duen erakundea edo saila adierazten da.
- Adierazleek, ebaluazioaren unean aurreikusita zegoen jardun bakoitza garatu ote den eta bere hedadura zein izan den jakiteko kontuan izango diren alderdiak adierazten dituzte. Ez dira eraginari loturiko adierazleak, prozesuari loturikoak baizik: ildo horretan, alde batetik aukera emango dute jardun bakoitza egin de ala ez jakiteko, eta bestetik, jardun bakoitzaren hedadurarekin erlazionatutako zenbait adierazle ezagutzeko, adibidez pertsona onuradunen kopurua edo horiek gauzatzeko erabilitako zenbateko ekonomikoa.

3.1 BABESEKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMARI DAGOZKION HELBURUAK ETA JARDUNAK

3.1.1. LEHEN HELBURU ESTRATEGIKOA ARAU-ESPARRUA EGOKITZEA, BABESEKO ETA GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROZESUAK ORDENATU ETA AHALBIDETZEKO.		
3.1.1.1 Lehen Helburu Operatiboa: Babesteko eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak arautzen dituen araudia egokitzea, diru-sarreraren bermerako prestazioen arian ariko unibertsalizaziorako joera izateko, gizarteratzeko eta babeseko eremuak bereiziz eta espezifikatuz.		
JARDUNAK	ERAKUNDE ARDURADUNA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK
1. Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Gutunak eratzen duten lege-esparrua berrikustea, bi arauen xedearen eta edukiaren arau-berrantolaketaren bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra 	<ul style="list-style-type: none"> - Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-bazterkeriaren aurkako lege berri bat Legebiltzarrerara bidaltzea eta onartzea.
2. Arau-esparru orokorra aldatzetik eratorritako Dekretuak lantzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra 	<ul style="list-style-type: none"> - Araudi berria garatzeko Dekretuak onartzea, Oinarrizko Errentari, GLLei, gizarteratzeko hitzarmenei eta sistemako gainerako oinarrizko elementuei loturik.
3.1.1.2 Bigarren Helburu Operatiboa: Babesteko eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak arautzen dituen araudia egokitzea, gizarte esku-hartzeko indibidualizatua bultzatzeko eta errazteko eta gizarteratzeko mekanismoak indartzeko.		
JARDUNAK	ERAKUNDE ARDURADUNA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK
3. Premialdiko langileak kontratatze laguntza ekonomikoen banaketa arautzen duen Agindua aldatzea, Oinarrizko Errenta eta GLLak jasotzen dituztenekin gizarteratzeko hitzarmenak inplementatu dituzten eta laguntza pertsonalizatuko programak martxan jarri dituzten Udaletara bideratuz lehentasunez laguntzak.	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Udalak - Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra 	<ul style="list-style-type: none"> - Agindua aldatzea. - Laguntzak jasotzen dituzten udalen kopurua eta kontratatutako profesionalen kopurua. - Laguntzak finantzatzera bideratutako partida ekonomikoen zenbatekoa. - Sinatutako gizarteratze-hitzarmenen kopurua.
4. Gizarteratzearen arloan jarduerak egiteko diru-laguntzak arautzen dituen Agindua aldatzea, GKEekin urte anitzeko hitzarmenak ezar daitezzen baimentzeko, bazterkeria handiko sektoreetan gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak kudea ditzaten, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinatuz eta haien lagungarri gisa.	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Udalak - Irabazi-asmorik gabeko erakundeak 	<ul style="list-style-type: none"> - Agindua aldatzea. - Laguntzak jasoko dituzten erakundeen kopurua, eta erakunde horien bitartez gizarteratze-prozesuetan parte hartzen duten erabiltzaileen kopurua.

3.1.1. LEHEN HELBURU ESTRATEGIKOA

ARAU-ESPARRUA EGOKITZEA, BABESEKO ETA GIZARTERATZE ETA LANERATZE PROZESUAK ORDENATU ETA AHALBIDETZEKO.

	<ul style="list-style-type: none"> - Foru Aldundiak - Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra 	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntzak finantzatzera bideratutako partida ekonomikoen zenbatekoa.
--	--	--

3.1.2. BIGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA

GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BABESEKO POLITIKEN DIAGNOSTIKO ETA JARRAIPEN SISTEMA BATERATU ETA OROKORTZEA

3.1.2.1 Lehen Helburu Operatiboa: Gizarte esku-hartze indibidualaren diagnostikatu eta planifikatzeko lana arintzeko, informazioa transmititzeko eta agente guztiak koordinatzeko beharrezkoak diren tresna teknikoak eta informatikoak garatzea eta zabaltzea, hala plangintza orokorraren mailan nola esku-hartze indibidualaren mailan.

JARDUNAK	ERAKUNDE ARDURADUNA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK
<p>5. "Diagnostikoa eta Esku-hartze Soziala" tresnaren erabilera orokortzea Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoan, nahitaez aplikatuz gizarteratze-prozesuetan, sistema horretan gauzatzen diren tresnak estandarizatzeko prozesuen esparruan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tresna hori erabiltzeko laguntza- eta prestakuntza-taldeak sortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Foru Aldundiak - Udalak - Ebaluazio Zuzendaritza - Gizarte Gaietako Sailburuordetza 	<ul style="list-style-type: none"> - Tresnaren erabilera ezartzen duten oinarritzko gizarte-zerbitzuen eta Gizarteratze Zerbitzuen kopurua. - Sistemaren barne hartutako espedienteen kopurua.

3.1.2. BIGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BABESEKO POLITIKEN DIAGNOSTIKO ETA JARRAIPEN SISTEMA BATERATU ETA OROKORTZEA		
<p>6. Gizarte.net gunean dagoen “Diagnostiko eta Esku-hartze Soziala” aplikazioa zabaltzea prestazioko eta gizarteratzeko eta laneratzeko programa guztietara.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Foru Aldundiak - Udalak - Irabazi-asmorik gabeko erakundeak - Ebaluazio Zuzendaritza - Gizarte Gaietako Sailburuordetza 	<ul style="list-style-type: none"> - Aplikazioaren erabiltzaile kopurua. - Aplikazioa instalatuta duten programen kopurua.
<p>7. Lankidetzeta-protokoloak orokortzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Lanbideko Orientabide Zerbitzuen eta INEMen artean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Enplegu Zuzendaritza - INEM - Tokiko Enplegu Agentziak - Udalak - Ebaluazio Zuzendaritza 	<ul style="list-style-type: none"> - Ezarritako lankidetzeta-protokoloak. - Oinarrizko Zerbitzuetatik enplegua sustatzeko erakundeetara bideratutako erabiltzaileen kopurua eta elkarrekin egindako jarduerak.
<p>8. Gizarte Zerbitzuei buruzko Informaziorako Euskal Sistema garatzea, prestazio ekonomikoei buruzko informaziorako modulu espezifiko bat barne hartuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Gaietako Sailburuordetza - Ebaluazio Zuzendaritza - Foru Aldundiak - Udalak 	<ul style="list-style-type: none"> - Sistema abian jartzea; - Sistemaren erabiltzaile kopurua eta erakunde eta zentro informatzaileen kopurua; - Jaulkitako txostenak.
<p>9. Informatika-aplikazio bat lantzea EAEko gizarteratzerako baliabideen mapa ezagutzeko, une bakoitzean eta lurralde bakoitzean eskura dauden baliabideekin, horiek lortzeko baldintzekin eta okupazio-mailarekin, sisteman barne hartutako informazioa eta “Diagnostiko eta Esku-hartze Soziala” aplikaziotik eratorritakoa lotuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Gaietako Sailburuordetza - Foru Aldundiak - Ebaluazio Zuzendaritza - Udalak 	<ul style="list-style-type: none"> - Aplikazioa sortzea; - Barne hartutako zentrozen eta baliabideen kopurua.
<p>3.1.2.2 Bigarren Helburu Operatiboa: Sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzea, ebaluazioak eta jardunen jarraipen sistematikoa eginez eta kalitate-planak aplikatuz.</p>		
JARDUNAK	ERAKUNDE ARDURADUNA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK

3.1.2. BIGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA**GIZARATERATZEKO ETA GIZARTE BABESEKO POLITIKEN DIAGNOSTIKO ETA JARRAIPEN SISTEMA BATERATU ETA OROKORTZEA**

<p>10. Gizarteratzearen esparruan lan egiten dute zentro eta zerbitzuetan kalitate-tresnak sustatzea, baliabide materialak eta giza baliabideak hobeto aprobetxatu ahal izateko, eta garatutako zerbitzuen eta programen eraginkortasuna ebaluatzea ebaluazio-tekniken eta sistemaren etengabeko hobekuntzaren bitartez.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kalitatea egiaztatze / onartze sistema bat diseinatzea; - Ebaluazio-sistema bateratu bat diseinatu eta aplikatzea, Euskadin gizarte-bazterkeriaren alorrean diharduten zerbitzu eta zentro desberdinen premia eta ezaugarrietara egokitua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Foru Aldundiak - Udalak - Irabazi-asmorik gabeko erakundeak - Ebaluazio Zuzendaritza - Gizarte Gaietako Sailburuordetza 	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako kalitate-planak; - Egindako zentrozen eta zerbitzuen ebaluazioak.
<p>11. Oinarrizko Errentaren ebaluazio sistematikorako eredu bat diseinatzea, horren aplikazioa hobetuko duen erabaki-hartzea neurtu, kontrolatu, perfilatu eta orientatzeko aukera ematen duten ebaluazio-adierazleen definizioaren bitartez, eta jasotzaileen bilakaerari eta ezaugarriei buruzko aldizkako informazio-sistema bat eratuz, horren ebaluaziorako batez ere kontuan izanik Aldundietako eta Udaletako gizarteratzeko sekzioetako arduradunen irizpideak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Programak eta Zerbitzuak Ebaluatze Zuzendaritza - Foru Aldundiak - Udalak - Irabazi-asmorik gabeko erakundeak 	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazle-taula bat ezartzea; - Aldizkako informazioko sistema bat ezartzea; - Jaulkitako txostenen kopurua eta ezaugarriak.
<p>3.2.3.3 Hirugarren Helburu Operatiboa: Gizarteratzeko Euskal Planaren eta beste erakunde arteko eta sailen arteko plan batzuen artean koherentzia eta sinergiak bultzatzea.</p>		
JARDUNAK	ERAKUNDE ARDURADUNA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK
<p>12. Etengabeko koordinazioa bultzatzea Gizarteratzeko Erakunde arteko Planaren eta honako plan hauen artean: Enplegurako Erakunde arteko Plana, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Plana, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana, Gizarte Politikak Ebaluatze Plana, Immigrazioko Euskal Plana eta Droga-mendetasunei buruzko Euskal Plana.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Gizarte Gaietako Sailburuordetza - Enplegu Zuzendaritza - Ebaluazio Zuzendaritza - Familia Zuzendaritza 	<ul style="list-style-type: none"> - Ezarritako koordinazio-egiturak.
<p>13. Foru Aldundiek eta, hala dagokionean, Udalek programa operatiboak idatz ditzaten bultzatzea, programa horietan gizarteratzeari</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Foru Aldundiak 	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako programen kopurua eta ezaugarriak;

3.1.2. BIGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE BABESEKO POLITIKEN DIAGNOSTIKO ETA JARRAIPEN SISTEMA BATERATU ETA OROKORTZEA		
<p>loturik dituzten helburuak proposatzeko, eta horien bitartez adierazitako kolektiboen estaldura-maila homogeneoa bermatu ahal izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko enplegu-agentziak - Gizarte Gaietako Sailburuordetza 	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako programa espezifikoetako parte-hartzaileak; - Programak finantzatzera bideratutako partida ekonomikoen zenbatekoa.
<p>14. Hiru Lurralde Historikoetako bakoitzean erakunde arteko mahaiak orokor daitezen bultzatzea, gizarte-bazterkeriaren aurkako eta gizarteratzeko politikak koordinatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Foru Aldundiak - Udalak - Irabazi-asmorik gabeko erakundeak 	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako erakunde arteko mahaiak, eta horiek osatzen dituztenak; - Mahai bakoitzak egindako jardunen kopurua.
<p>15. EAEko espetxeetan kondena betetzen ari diren pertsonentzako Gizarte Zerbitzuen prestazioa bultzatzea, eta bereziki, neurri judizialak betetzen ari diren adingabe arau-hausleentzako Gizarte Zerbitzuen prestazioa bultzatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza. - Gizarte Gaietako Sailburuordetza - Foru Aldundiak - Irabazi-asmorik gabeko erakundeak 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Zerbitzuen euskal sisteman barne hartutako zerbitzuen eta prestazioen erabiltzaile diren espetxe eta erreformategietan barne hartutako pertsonen kopurua.

3.1.3. HIRUGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA.

Kalitate-maila handiena lortzea prestazio ekonomikoetan, prestazio horiek premia-egoeran dauden bizikidetz-unitate guztiari iritsiko zaizkiela bermatuz eta oinarrizko esku-hartze integrala sustatuz.

3.1.3.1 Lehen Helburu Operatiboa: Oinarrizko Errentaren orokortzerantz aurrera egitea.

JARDUNAK	ERAKUNDE ARDURADUNA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK
<p>16. Bizikidetz-unitatea berriro definitzea, kontzeptua familia-nukleoaren errealitatera hurbilduz, nukleo batekoak ez diren etxe bateko pertsonak egoera jakin batzuetan bizikidetz-unitate independentetzat har daitezten.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Foru Aldundiak 	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko Errenta lor dezaketen familia-unitateen ezaugarriak arautzen dituen araudia onartzea; - Familia-unitateak berriro definitzearen ondorioz Oinarrizko Errenta jasotzen duten familia-unitate berrien kopurua; - Familia-unitate horientzat bideratutako aurrekontu-partida.
<p>17. Oinarrizko Errentaren zenbatekoa LGSren %100era parekatzea 65 urtetik gorakoak diren eta Oinarrizko Errenta jasotzen dutenentzat eta premia-egoeran dauden adin horretatik beherako pentsiodunentzat.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Foru Aldundiak 	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko Errentaren zenbatekoa arautzen duen araudia onartzea; - LGSaren %100ekin kopurua parekatuta duen Oinarrizko Errentaren jasotzaileen kopurua; - LGSaren %100era parekatzearen kostu absolutua eta erlatiboa.
<p>18. Oinarrizko errenta baliatzeko salbuespen berriak barnean hartzea adin-nagusientzat eta 23 urtetik beherakoentzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 18tik 23 urtera bitarteko taldean premia bereziko kasu guztiak barne hartzea. - Premia-egoera horien arauzko garapena. - Jarrapenerako Erakunde arteko Batzordeak hori loturiko irizpideak ezarri eta bateratzea, araudian bilduta ez dagoen edozein premia-egoera behar bezala baloratzeko eta 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteratze Zuzendaritza - Foru Aldundiak 	<ul style="list-style-type: none"> - 18 eta 23 urte bitarteko pertsonen Oinarrizko Errenta lortzeko salbuespen berriak arautzen dituen araudia onartzea; - Oinarrizko Errenta jasotzen duten 18 eta 23 urte bitarteko pertsonen kopurua.

3.1.3. HIRUGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA.

Kalitate-maila handiena lortzea prestazio ekonomikoetan, prestazio horiek premia-egoeran dauden bizikidetz-unitate guztiei iritsiko zaizkiela bermatuz eta oinarrizko esku-hartze integrala sustatuz.

tramitzeko Gizarte Zerbitzuetatik eta Foru Aldundietatik.		
19. Gizarte-bazterkeria egoeran dauden guraso bakarreko familiei emandako babes handitzea. – Oinarrizko Errentarekiko haborokin edo sorospen osagarri bat ezartzea, guraso bakarreko familientzako semeak eta alabak zaintzeko.	– Gizarteratze Zuzendaritza – Foru Aldundiak	– Sorospen osagarria arautuko duen araudia onartzea. – Familia onuradunen kopurua – Adierazitako hobarira bideratutako aurrekontu-partida.
20. Gizarteratzeko zentroi buruz ezarritako Erabakiaren arauzko garapena.	– Gizarteratze Zuzendaritza – Gizarte Gaietako Sailburuordetza – Foru Aldundiak – Udalak	– Aplikazio-araudi bat lantzea, – Gizarteratzeko zentroetan bizi diren eta oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonen kopurua.
3.1.3.2 Bigarren Helburu Operatiboa: Gizarteratze-errentak eta babes-errentak bereiztea eta espezializatzea.		
JARDUNAK	ERAKUNDE ARDURADUNA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK
21. Etxebizitzako prestazio osagarri bat ezartzea, eskubide gisa eratuta eta oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonentzat, betiere aldizka-aldizka alokairuko etxebizitza-gastuak edo ohiko etxebizitza edo alojamendua eskuratzeko eskaturiko kredituen interesen eta amortizazioaren ondoriozko gastuak aurkezten eta egiaztatzen badituzte.	– Gizarteratze Zuzendaritza – Foru Aldundiak – Udalak – Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra	– Prestazioa arautzen duen araudia onartzea; – Prestazioaren onuradunak; – Etxebizitza-prestaziora bideratutako partida ekonomikoen zenbatekoa.
22. Gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) asistentziatzko eta denborazko jatorrizko izaera indartzea, horrelako laguntzekin gaur egun ordaintzen diren edukien nondik norakoaren egokitzapena aparte	– Gizarteratze Zuzendaritza – Foru Aldundiak – Udalak	– GLLak arautzen dituen egungo araudia aldatzea; – Prestazioaren onuradunak;

3.1.3. HIRUGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA.

